

Ingurumena Euskal Autonomia Erkidegoan

2005

INGURUMEN-ADIERAZLEAK

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE
ANTOLAMENDU SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO



Ingurumena Euzko Jaurlaritzaren Agintea
Bilbo 48.001 - 20080 Leioa

Ingurumena

Ciudad 2341 4899



Ingurumen Estrategiaren Agiria Saila

Ingurumeneko Esparru Programa Saila bildumako tituluak www.ingurumena.net helbide elektronikoan ikus ditzakezu.

- **29.zk. 2004ko otsaila.** "2002ko Euskal Autonomia Erkidegoko Berotegi Gasen Emisioen Inbentarioa"
- **30.zk. 2004ko martxoa.** "2004ko Ekobarometro Soziala"
- **31.zk. 2004ko martxoa.** "Euskadi nire autorik gabe. 2003. Euskal Udalerrietako Mugikortasun Iraunkorrerantz"
- **32.zk. 2004ko ekaina.** "TOKIKO AGENDA 21. Ekintzaplanak martxan jartzeko gida"
- **33.zk. 2004ko ekaina.** "TOKIKO AGENDA 21. Partehartzeko mekanismoak martxan jartzeko gida"
- **34.zk. 2004ko ekaina.** "Ore eta paperaren sektoreko enpresen ingurumen-ekarpena garapen iraunkorrari. 2004-2006"
- **35.zk. 2004ko uztaila.** "Hondakin arriskutsuen kudeatzaileen sektoreko enpresen ingurumen-ekarpena garapen iraunkorrari"
- **36.zk. 2004ko iraila.** "Euskal Autonomia Erkidegoan mugikortasun iraunkorraren udal-planak egiteko gida praktikoa"
- **37.zk. 2004ko iraila.** "Burdin Galdaketaren, ez-burdinazko Galdaketaren eta ez-burdinazko Metalurgiaren Sektoreko enpresek Garapen Iraunkorrari egiten dioten Ingurumen-ekarpena (2204- 2006)"
- **38.zk. 2004ko urria.** "Tokiko Agenda 21. Aurrera egiteko komunikatzea. Prozesuan komunikatzeko estrategien eskuliburua"
- **39.zk. 2004ko otsaila.** "Iraunkortasuna aintzat hartzen duten jaiak"
- **40.zk. 2004ko otsaila.** "Euskal Autonomia Erkidegoko 2004ko Ingurumen Adierazleak"
- **41.zk. 2004ko azaroa.** "2003ko Euskal Autonomia Erkidegoko Berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioen inbentario"
- **42.zk. 2004ko abendua.** "Euskal Autonomia Erkidegoan Plan eta Programen Ingurumeninaktuaren Ebaluazio Bateratua Aplikatzeko Gida"
- **43.zk. 2005ko urtarrila.** "Euskal Autonomia Erkidegoko Aztarna Ekologikoa"
- **44.zk. 2005ko apirila.** "Euskal Autonomia Erkidegoko garraioaren kanpo-kostuak. MUGIKOST'05"
- **45.zk. 2005ko ekaina.** "Gazteak aldaketaren alde. Kontsumo iraunkorrerako hezkuntzako esku-liburua"
- **46.zk. 2005ko apirila.** "Beira-, Zeramika- eta Karesektoreko enpresek Garapen iraunkorrari egiten dioten ingurumen-ekarpena 2005-2006"
- **47.zk. 2005ko Maiatza.** "Laburpena: Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumenaren Egoera 2004"
- **48.zk. 2005ko apirila.** "Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruan eta biomasan dagoen karbono organikoaren inbentarioa"
- **49.zk. 2005ko apirila.** "Aalborgeko konpromisoak. Euskal udalerriek Europako iraunkortasunari egindako ekarpena"
- **50 zk. 2005ko maiatza.** "50 Ingurumen Jardunbide Egoki, Udalerriak Eredu"
- **51 zk. 2005ko maiatza.** "Mugikortasunaren aldeko 250 ekintza euskal udalerrietan (Ekinean mugikortasun iraunkorraren bidean)"
- **52 zk. 2005ko uztaila.** "2004ko Industria Ekobarometroa"
- **53 zk. 2005ko iraila.** "Berotegi-Efektua eragiten duten Gasen Emisioen Inbentarioa Euskal Autonomia Erkidegoan 2004"
- **54 zk. 2005ko urria.** "Gainazalak Tratatze Sektoreko enpresek Garapen Iraunkorrari egiten dioten Ingurumen-ekarpena 2005-2006"
- **55 zk. 2005ko azaroa.** "Ingurumena Euskal Autonomia Erkidegoan. 2005ko Ingurumen-Adierazleak"

© IHOBE 2005

Argitaratzailea: Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa – IHOBE

Diseinua eta gauzatzeko grafikoa: Dual XJ - Comunicación & Diseño

Itzulpena: Elhuyar

Lege Gordailua: BI-xxx-05

Paper birziklatuan eta klororik gabe zurituan inprimatua

ESKUBIDE GUZTIAK ERRESERBATUTA

Debekatuta dago publikazio hau erreproduzitzea, informazioa berreskuratze sistemetan gordetzea eta publikazio honen zati bat transmititzea, erabilitako bitartekoa edozein dela ere (elektronikoa, mekanikoa, fotokopia, grabazioa, etab.), jabetza intelektualaren eskubideen titularraren eta editorearen idatzizko baimenik gabe.

Ingurumena Euskal Autonomia
Erkidegoan



INGURUMEN-ADIERAZLEAK

Índice

AURKEZPENA	3
INGURUMEN-ADIERAZLEEN BILAKAERAREN LABURPENA	4
SARRERA	6
A INGURUMEN-KALITATEA ETA POLUZIOA	
1. ADIERAZLEA. UREN KALITATEAREN INDIZEA	7
2. ADIERAZLEA. KARGA POLUITZAILEAK KONTINENTE BARRUKO ETA KOSTALDEKO URETAN	11
3. ADIERAZLEA. AIREAREN KALITATEAREN INDIZEA	12
4. ADIERAZLEA. POLUITZAILE ATMOSFERIKOEN EMISIOAK	14
5. ADIERAZLEA. LURZORU POLUITUAK: IKERTUAK ETA BERRESKURATUAK	16
6. ADIERAZLEA. BIODIBERTSITATEA ETA PAISAIA	17
7. ADIERAZLEA. BEROTEGI-EFEKTUA ERAGITEN DUTEN GASEN EMISIOAK	19
8. ADIERAZLEA. HONDAKINEN SORRERA	21
9. ADIERAZLEA. HONDAKINEN KUDEAKETA	22
10. ADIERAZLEA. ZARATA	24
11. ADIERAZLEA. INGURUMEN-FAKTOREEK OSASUNEAN ERAGITEN DITUZTEN ONDORIOAK	26
12. ADIERAZLEA. INGURUMENEAN ERAGINA DUTEN GERTAKARIAK	28
B BALIABIDE NATURALEN KONTSUMOA	
13. ADIERAZLEA. UR-KONTSUMOA	30
14. ADIERAZLEA. ENERGIA-KONTSUMOA	31
15. ADIERAZLEA. MATERIALEN KONTSUMOA	33
16. ADIERAZLEA. LURZORUAREN ARTIFIZIALIZAZIO INTENSITATEA	35
C ERANTZUNAK	
17. ADIERAZLEA. INGURUMENA BABESTEN EGITEN DEN GASTU PUBLIKOA	37
18. ADIERAZLEA. NEKAZARITZA SEKTOREKO JARDUERAK	38
19. ADIERAZLEA. TOKIKO AGENDA 21 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALERRIETAN	40
20. ADIERAZLEA. INGURUMEN-KUDEAKETA ENPRESAN	42
21. ADIERAZLEA. MUGIKORTASUN IRAUNKORRA	43
D EKONOMIA-INGURUMENA ERLAZIOA	
22. ADIERAZLEA. EKOERAGINKORTASUN GLOBALA ETA SEKTORIALA	45
ONDORIOAK	49
ERANSKINAK	54

Aurkezpena

Eusko Jurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren ustez, ingurumen-alderdiak oso kontuan hartu behar dira garapen iraunkorrari buruzko eztabaidan. Gai hori eztabaidatzeko, informazio argia eta ulerterraza eman behar zaio gizarteari, ingurumenaren egoerak izan duen bilakaera labur deskribatzen duen informazioa. Horixe du helburu, hain zuzen, **Ingurumen-adierazleei** buruzko argitalpen honek. Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak urtero prestatzen du txostena.

Aurtengo adierazleen arabera, ondo ari gara lan egiten, baina oraindik bide luzea dugu egiteko. Ahaleginari esker lortu duguna bizimoduaren, kontsumo-ohituren eta garapen-moduaren ondorioz galdu dugu. Geroz eta gehiago birziklatzen badugu ere, lehen baino hondakin gehiago sortzen dugu. Mugikortasun iraunkorreko planak prestatzen hasi arren, autoa eta kamioia erabiltzen ditugu gehien oraindik. Lehen baino modu eraginkorragoan ustiatzen ditugu natur baliabideak (materialak, lurzorua eta energia), baina kantitate handiagoak kontsumitzen ditugu.

Horrez gain, laugarren txosteneko datuek berretsi egiten dute zenbait arloren inguruan dugun kezka, ezinbestekoak baitira iraunkortasunaren bidean aurrera egiteko; hona hemen horietako arlo batzuk: berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioak, hondakinen sorrera eta lurzoruaren eta energiaren kontsumoa. Hortaz, arlo horiek hobetzea izango da etorkizuneko erronka nagusia, eta, horren ondorioz, arlo horiek lehentasuna izango dute zuzentzen dudana sailaren jardueren agendan.

Txosten honek konturarazi behar gaitu gure gizarte-eredua nabarmen aldatu behar dugula lehenbailehen, hurrengo belaunaldiek beren beharrak asetzeko nahikoa natur baliabide eta bizitzeko inguru osasungarria izan ditzaten.



























Esther Larrañaga

Eusko Jurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailburua


Ingurumen-adierazleen bilakaeraren laburpena

ADIERAZLEA	AZTERTUTAKO EPEA	JOERA, 2005.ko Txostena	HELBURUA LORTZEA	ALDERDI AIPAGARRIAK
1. Uren kalitatearen indizea	2000-2004			<ul style="list-style-type: none"> 2000tik 2004ra, ibaietako uren kalitatea hobetu egin da, oro har: 2000n, estazioen % 18k lortu zuten kalifikazio ona; 2004an, berriz, % 38k. Bestalde, 2004an uren kalitateak okerrera egin du 2003koarekin alderatuta; izan ere, 2003an, uren % 52 garbi edo poluitu gabe zeuden. Estuarioko urei dagokienez, egoera egonkortu egin da eta gehienek poluzio ertainaren, handiaren eta izugarriaren kalifikazioa izan dute. 2000tik 2004ra, estazioen % 6 eta % 11 bitarte kalifikatu ziren poluitu gabe gisa. Kostaldeko urak ere, estuarioko urak baino egoera hobea izanik, egonkortu egin dira: bai 2004an eta bai 2000n estazioen % 46 poluitu gabe gisa kalifikatu ziren.
2. Karga poluitzaileak kontinente barruko eta kostaldeko uretan	1998-2004			<ul style="list-style-type: none"> Ipar Arroko ibaiak itsasoko eta lehorreko eremura isuritako karga poluitzaileen joera positiboa izan zen 1998-2004 epean, saneamendu-azpiegiturak egin zirelako. Azpimarratzekoak dira kobreaken (- % 59), zinkaren (- % 85) eta fosforodun konposatuen (- % 81) eta konposatu nitrogenatuen (- % 56) jaitsierak.
3. Airearen kalitatearen indizea	2001-2004			<ul style="list-style-type: none"> 2004an, airearen kalitateak izan duen arazo bakarra da gainditu egin dela partikula esekien gehienezko kopurua; ozono troposferikoaren eragina, berriz, desagertu egin da.
4. Poluitzaile atmosferikoen emisioak	1990-2003			<ul style="list-style-type: none"> 1990 eta 2003. urtea bitartean, substanzia azidotzaileen eta troposferako ozonoaren aitzindarien emisioak % 14 eta % 11 jaitsi dira hurrenez hurren. SO₂ eta KOLen emisioen bilakaeran, berriz, ikusten da Europako Batasunak zehaztutako helburuen bidean gaudela. Ezin da gauza bera esan NO_x-z, emisioak % 8 igo baitira 1990az geroztik. 2003an, hiru poluitzaile horien emisioek behera egin dute (NO_x - % 6, SO₂ -% 24 eta KOL - % 9).
5. Lurzoru poluituak: ikertu eta berreskuratu diren lurzoru poluituak	1990-2004			<ul style="list-style-type: none"> 1990etik 2004ra, poluituta egon zitezkeen 582 hektarea lurzoru (191 leku) ikertu ziren; berreskuratu, berriz, 227 hektarea (95 leku). 2004an, lurzoruak ikertzeko eta berreskuratzeko joerak gorantz segitu zuen.
6. Biodibertsitatea eta paisaia	Urte batzuk		-	<ul style="list-style-type: none"> 34 ornodun-espezie desagertzeko arriskuan daude. Azalera totalaren % 11 natur gune babestuetan sartuta dago. Lurraldearen % 14 etorkizuneko Korridore ekologikoen sarean sartzeko proposatuta dago. Azaleraren % 45 ikusizko inpaktu negatiboen eraginpean dago.
7. Berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioak	1990-2004			<ul style="list-style-type: none"> 1990 eta 2004 artean, Euskal Autonomia Erkidegoan sortu eta berotegi-efektua eragiten duten gas nagusien zuzeneko emisioak % 35 igo dira eta, emisio totalak % 22 (zuzeneko emisioak eta zeharkakoak kontuan hartuta). 2004ean guztira 20,4 milioi tona CO₂ baliokide isuri ziren (24,6 milioi, zuzeneko eta zeharkako emisioak kontuan hartuta). 2003an baino % 5 gehiago, alegia. 2004an, Euskal Autonomia Erkidegoan biztanleko sortu zen BEG kopurua 11,6 tona CO₂ baliokide ingurukoa izan zen, 2003ko EB-15ekoa (11) eta Espainiakoa (9,7) baino zertxobait altuagoa.
8. Hondakinen sorrera	1998-2004 (Hirikoak) 1994-2003 (Arrisksuak)		 	<ul style="list-style-type: none"> 1998-2004 bitartean % 14 handitu da biztanle bakoitzak sortutako hiri-hondakinen kopurua. 2004an, 559 kg hiri-hondakin sortu zen biztanleko; hots, 2003an baino 16 kg gehiago (% 3). 2003an, 346.491 tona hondakin arrisksu sortu ziren; hots, 2002an baino % 3,3 gehiago.
9. Hondakinen kudeaketa	1998-2004 (Hirikoak) 1994-2003 (Arrisksuak)		 Erdietsia	<ul style="list-style-type: none"> 1998 eta 2004 bitartean, zabortegetan uzteko hiri-hondakinen ehuneko 20 puntu jaitsi da (1998ko % 85etik 2004ko % 65era). Gainera, gaika jasotako etxeko hondakinen kopurua bikoiztu egin da. 2003an inbentarioan sartutako hondakin arrisksuen % 100 kudeatu ziren (% 72 1994an) eta % 51 balorizatu (2006rako helburu gisa ezarritako ehuneko).
10. Zarata	2004			<ul style="list-style-type: none"> Euskal Autonomia Erkidegoko lurren % 9,3k errepide-sarearen ondoriozko zarata-maila altuak jasaten dituzte, eta % 2,9k trenbide-sarearen ondoriozkoak Euskal Autonomia Erkidegoko 94 udalerrik egin behar dute garraio-sareetako zirkulazioak eragindako zaraten mapa. Horietatik 21 hasi dira dagoeneko mapa egiten.
11. Ingurumen-faktoreek osasunean eragiten dituzten ondorioak	1990-2004		-	<ul style="list-style-type: none"> 1990etik 2004ra ez da aurkitu aztertutako lau metal astunei dagozkien gehienezko harte-maila onargarrien balioak gainditu dituzten laginik. 2004an, ez da atzeman urak eragindako agerraldirik. Elikagaiak eragindako agerraldiei dagokienez, aurreko urteekin alderatuta, murriztu egin da agerraldien eta kaltetutako pertsonen kopurua.
12. Ingurumenean eragina duten gertakariak	1996-2004		-	<ul style="list-style-type: none"> Azken bost urteetan, ingurumenean eragina duten gertakarien kopurua txikitu egin da; beraz, bukatu da 1996tik 1999ra izandako joera negatiboa.
13. Ur-kontsumoa	2001-2004			<ul style="list-style-type: none"> 2001-2004 aldian, EAEko hiru hiriburuetan, ur-kontsumoak ia egonkortuta daude, biztanleen eta gainerako ur-kontsumitzaileen sektoreen egonkortasunarekin bat etorriz.


ADIERAZLEA	AZTERTUTAKO EPEA	JOERA, 2005.ko Txostena	HELBURUA LORTZEA	ALDERDI AIPAGARRIAK
14. Energia-kontsumoa a. Energia-kontsumoa b. Energia-intentsitatea	1990-2004 1990-2004	 	 	<ul style="list-style-type: none"> Energiaren azken kontsumoa % 38 handitu zen 1990-2004 epean. 2004an, % 4,6 egin zuen gora aurreko urtearekin alderatuta. 1990 eta 2004 artean euskal ekonomiaren energia-intentsitatea % 13 jaitsi da; bestalde, 1997tik energia-intentsitatea % 2 handitu da. Energia berriztagarriak Euskal Autonomia Erkidegoko energia-eskariaren % 4,9 dira; 1990 geroztik % 77 handitu da kopuru hori.
15. Materialen kontsumoa a. Material beharrak guztira b. Material-eraginkortasuna	1990-2003 1990-2003	 	 	<ul style="list-style-type: none"> 1990 eta 2003 bitartean, materialen kontsumo osoa % 24 hazi zen: 1990ean, biztanleko 79 tona kontsumitzen zen, eta 2003an, 97 tona. 1990-2003 aldian, baliabide materialen kontsumoaren eraginkortasuna % 22 hazi zen. Hala ere, materialen erabileraren eraginkortasuna % 7 jaitsi da 1997 eta 2003 bitartean.
16. Lurzoruaren artifizializazio-intentsitatea	1994-2005			<ul style="list-style-type: none"> 1994 eta 2005 bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoko artifizializatutako azalera % 5,2 izatetik % 6,5 izatera pasatu da. 2005ean, 452 hektarea artifizializatu dira. Kantitate hori garrantzitsua da, nahiz eta azken bi urteetako igoera aurreko urteetako batez besteko igoerak baino txikiagoa izan.
17. Ingurumena babesteko egiten den gastu publikoa	1995-2004		-	<ul style="list-style-type: none"> Ingurumeneko gastu publikoa etengabe hazi da (+ % 66) 1995-2004 epean (2004an, horren % 10). Gainerako autonomia-erkidegoekin alderatuz gero, Euskal Autonomia Erkidegoa bosgarrena da baldin eta kontuan hartzen bada ingurumena babesten egiten den gastu osoa BPGrekiko, eta hirugarrena, berriz, baldin eta kontuan hartzen bada ingurumena babesten egiten den gastu osoa biztanleko.
18. Nekazaritza Sektoreko Jarduerak	1998-2004		 Erdietsia	<ul style="list-style-type: none"> 2003an, Euskal Autonomia Erkidegoan nekazaritzarako erabiltzen zen azalaren % 7,2n ingurumeneko eta nekazaritzako neurriak aplikatu ziren. 1998 eta 2004 urteen artean, nekazaritza ekologikorako erabilitako azalera % 163 hazi zen. 28.000 ha-ko baso-azalera ziurtagiria du, hau da, Autonomia Erkidegoko baso-azalera osoaren % 7k du ziurtagiria.
19. Tokiko Agenda 21 Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietan	1998-2005eko uztailen		 Erdietsia	<ul style="list-style-type: none"> Euskal Autonomia Erkidegoko 192 udalerrri daude Tokiko Agenda 21 ezartzeko prozesuan inplikaturik, eta horietatik 66tan hasi dira ekintzak egiten. 5.000 biztanletik gorako Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri guztiek diseinatuta dute Tokiko Agenda 21eko programa. 2004-2005 ikasturtean, 130 ikastetxek dute Eskolako Agenda 21, eta 45.534 ikasle eta 2.881 irakasle hartu dute parte.
20. Ingurumen-kudeaketa enpresan	1998-2004		 Erdietsia	<ul style="list-style-type: none"> 2004an, 710 euskal enpresak zuten ingurumena kudeatzeko sistemaren baten ziurtagiria, eta, beraz, 2006rako jarritako helburua bete zen (600 enpresak ziurtagiria izatea). 2004an, 184 enpresa gehiagok lortu zuten ingurumena kudeatzeko sistemaren baten ziurtagiria (2003an baino % 38 gehiago), eta 92 enpresak egin zuten Ekoscan bat (2003an baino % 16 gehiago). Bestalde, 187 enpresak sinatu zuten borondatezko akordioaren bat ingurumenean eragiten dituzten inpaktuak murrizteko.
21. Mugikortasun iraunkorra	2003 2005eko irailen		-	<ul style="list-style-type: none"> Guztira, Euskal Autonomia Erkidegoko 60 udalerrri eta 8 eskualde ari dira mugikortasun iraunkorrerako planetan parte hartzen. Aurrera egiten hasi gara enpresen eta industrialdeen eremuan mugikortasun iraunkorrerako planak ezartzen. Garraio publikoa erabiltzen duten bidaiariren kopurua % 29 igo da 1998 eta 2003 artean. Garraio publikoan bioerregaien erabilera igo egin da Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburuetan.
22. Ekoeraginkortasun globala eta sektoriala: Ekonomia oro har Garraioa Industria Etxeak Energiaren transformazioa	1990-2004 1990-2004 1990-2004 1990-2004 1990-2004	    		<ul style="list-style-type: none"> 1990-2004 bitartean, nolabaiteko etadura izan zen hazkunde ekonomikoaren eta ingurumenaren artean, ingurumen-presio nagusiak gehitu egin baitziren, BPGa baino neurri txikiagoan betiere. Alor horren ingurumen-presio nagusiak hazkunde ekonomiko totala baino neurri handiagoan ari dira handitzen. 2004an, sektorearen ingurumen-presio nagusiek gorantz jarraitu zuten.. 1990etik aurrera, sektore honek murriztu egin ditu bere ingurumen-presioak, produkzioa nabarmen handitu den arren. Azken urteotan, sektore honek egindako ingurumen-presioak etxeetako gastuaren hazkundera baino neurri handiagoan gehitu dira. 2004an, gehitu egin dira Euskal Autonomia Erkidegoko etxeetako ingurumen-presio guztiak. 1990 eta 2004 bitartean, energia-ekoizpena igo egin zen, eta berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioak ere igo egin ziren.


Adierazleen koadroetako aurpegiek balorazio zehartza erakusten dute:

 **Joera positiboa**, helburua lortzeko bidean.

 **Zenbait joera positibo**, baina ez dira nahikoak helburuak lortzeko; edo adierazlearen joera gurutzatuak daude.

 **Joera negatiboa**, helburuaren kontrako norantza hartu da.

 Gaur egungo politikekin jarraituta, lortzeko moduko helburuak.

 Gaur egungo politikekin jarraituta, agian lor daitezkeen helburuak.

 Gaur egungo politikekin jarraituta, lortzeko zailak diren helburuak.

Sarrera

2002-2020ko Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia

INGURUMEN-HELBURUAK

1. Aire, ur eta lurzoru garbiak eta osasungarriak bermatzea.
2. Natur baliabideen eta hondakinen kudeaketa arduratsua.
3. Natura eta biodibertsitatea babestea: sustatu beharreko balio paregabea.
4. Lurralde-oreka eta mugikortasun lortzea, ikuspegi bateratua.
5. Klima-aldaketarekiko eragina mugatzea.

NAHITAEZKO BALDINTZAK

1. Ingurumen-aldagaia beste politika batzuetan kontuan hartzea.
2. Indarrean dauden ingurumen-legeak eta horien aplikazioa hobetzea.
3. Merkatuak ingurumenaren alde lan egin dezan bultzatzea.
4. Herritarrak, Administrazioa eta enpresak gaitzea eta haiek ere erantzukizuna hartzea eta beraien jokabideak iraunkortasun handiagoari begira aldatzea.
5. Ingurumenari buruzko ikerkuntza, garapen teknologikoa eta berrikuntza bultzatzea.

Gure herriak garapen iraunkortzat ulertzen duena definitzeko epe ertainean eta luzean guztion artean erdietsi behar ditugun helburuak jasotzen dira 2002-2020ko Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategian.

Estrategiaren baitan, urtean behin gauzatuko diren bi segimendutresna ezarri dira:

- **Ingurumen Iraunkortasunari buruzko Txostena.** Ekainaren lehenengo astean aurkezten zaio Gobernu Kontseiluari. Txosten horretan, iraunkortasunaren arloan izandako hobekuntzak jasotzen dira, konpromisoen baitan egindako jardueren arabera. Gainera, ingurumen-iraunkortasunari buruzko Gobernuaren balorazio orokorra egiten da, epe motzera finkatutako erronka nagusiak zein diren adierazten diguna. 2003, 2004 eta 2005ko txostenak ikus ditzakezu <http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net> helbidetan.
- Urte bakoitzeko azaroan **22 ingurumen-adierazle** aurkezten dira, eta giza jarduerak ingurumenean duten eraginari eta bilakaerari buruzko ondorio orokorrak ateratzeko aukera ematen dute. Neur dezakeguna baino ezin dugula kudeatu erakusten digute. Adierazle horien **helburuak** hauek dira:
 - Informazio argi eta erraza ematea.
 - Jendeari eta kudeatzaile politikoei adieraztea ingurumen-iraunkortasunaren bidean goazen ala ez.

- Herritarren arreta ingurumen-iraunkortasuneko garapenaren funtsera bideratzea, eta “*naturaren kontsumoa*”ren (baliabideen kontsumoa, emisioak, hondakinak isurtzea) murrizketari buruzko ikuspegi orokorra erakustea.
- Erabakiak hartzeko ardura dutenei laguntzea ingurumen-politikak kontrolatzeko eta ekimen handiagoa behar duten gaiak identifikatzeko helburuak ezartzen.
- Herritarrak ingurumen-gaietan kontzientziaztea.

22 ingurumen-adierazleak kalkulatzeko azterketa metodologikoa sakondu nahi dutenek, informazio-orri zehatz eta eguneratuak dituzte Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren web orrian (<http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net>).

Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-egoerari buruzko informazio zehatzagoa lortzeko, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren beste argiltapen batzuk kontsulta ditzakezu, baita ingurumenaren egoerari buruzko txostenak edota monografiak ere; horiek guztiak Eusko Jaurlaritzaren garapen iraunkorrari buruzko web orrian daude (<http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net>).

Adierazleen koadroetako aurpegiak balorazio zehatza erakusten dute:



Joera positiboa, helburua lortzeko bidean.



Zenbait joera positibo, baina ez dira nahikoak helburuak lortzeko; edo adierazlean joera gurutzatuak daude.



Joera negatiboa, helburuaren kontrako norantza hartu da.

Adierazleak hartzen duen aldi osoan oinarritzen da balorazioa.

Informazioaren kalitatea:

★ ★ ★ Handia

★ ★ Ertaina

★ Txikia

1. ADIERAZLEA Uren Kalitatearen Indizea



- 2000tik 2004ra, **ibaietako uren** kalitatea hobetu egin da, oro har: 2000n, estazioen % 18k lortu zuten kalifikazio ona; 2004an, berriz, % 38k. Bestalde, 2004an uren kalitateak okerrera egin du 2003koarekin alderatuta; izan ere, 2003an, uren % 52 garbi edo poluitu gabe zeuden.
- **Estuarioko urei dagokienez**, egoera egonkortu egin da eta gehienek poluzio ertainaren, handiaren eta izugarriaren kalifikazioa izan dute. 2000tik 2004ra, estazioen % 6 eta % 11 bitarte kalifikatu ziren poluitu gabe gisa.
- **Kostaldeko urak ere**, estuarioko urak baino egoera hobea izanik, egonkortu egin dira: bai 2004an eta bai 2000n estazioen % 46 poluitu gabe gisa kalifikatu ziren.

INGURUMEN-HELBURUAK

- Substantzia arriskutsu eta poluitzaileen isurpenak murriztea
- Lurpeko edo lur gaineko ur degradatuak saneatzea edo garbitzea.


GARAPEN IRAUNKORRAREN INGURUMEN ESTRATEGIAREN KONPROMISOAK

- 2012rako, lur gaineko uren % 80ren egoera ekologikoa eta kimikoa ona edo oso ona izatea.

EGOERAREN AZTERKETA ETA JOERAK:

Ur kontinentalak: ibaiak

BMWV' INDIZEAREN BILAKAERA (Euskal Autonomia Erkidegoa)




Estazio-kopurua BMWV' indizearen arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa


	2000	2001	2002	2003	2004
Garbiak edo poluitu gabeak	15	27	43	43	31
Nolabaiteko poluzioa dutenak	22	17	12	20	23
Poluituak, oso poluituak edo erabat poluituak	45	38	27	19	28
Estazio-kopurua guztira	82	82	82	82	82

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila.


BMWP' INDIZEAREN BILAKAERA (Araba)



BMWP' INDIZEAREN BILAKAERA (Bizkaia)



BMWP' INDIZEAREN BILAKAERA (Gipuzkoa)



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila.



Azken bost urteetako eta 82 estazioetako **BMWP' indizearen emaitzen bilakaerak** agerian uzten du uren kalitatea, oro har, hobetu egin dela hiru lurralde historikoetan 2000ekin alderatuta; hala ere, 2004an egonkortsu edo pixka bat okerrera egin du. Hala, 2004ko kanpainan ur garbien edo poluitu gabeen kalifikazioa jaso zuten estazioen % 44k Araban eta Bizkaian eta % 13k Gipuzkoan (% 38k Euskal autonomia Erkidegoan). Emaitza horiekin konparatuta, 2000ko kanpainan kalitate oneko estazioak honela banatu ziren: % 22 Araban, % 21 Bizkaian eta % 6 Gipuzkoan (% 18 Euskal autonomia Erkidegoan).

Ibaiek etorkizun itxaropentsua dutela esan dezakegu. Hiriko eta industriako hondakin-uren saneamenduan ahalegin handia egin da, eta horrek emaitza positiboak eman ditu. Emaitza horiek, ordea, hobetu egin behar dira hurrengo urteetan. Gaur egun, zati garrantzitsu batzuk egoera txarrean daude oraindik, bereziki Nerbioi-Ibaizabal, Deba eta Oriaren arroan. Hala ere, etorkizunean ibaien egoera hobetu ahal izango da pixkanaka Euskal autonomia Erkidegoko Saneamendu Gidaplanean oraindik egiteko dauden saneamenduak amaituta eta/edo birmoldatuta, eta erriberak berreskuratzeari eta babesteari buruzko aurreikuspenak, poluzioa murrizteko programa espezifikoak eta abar gauzatuta.

2004ko kanpainako BMWP' indizearen emaitzetan oinarrituta, ondorio hauek atera daitezke:

- Arabako Lurralde Historikoak ditu gatazka-puntu gutxien. Hauek dira, hain zuzen: Zadorra Aguraindik ibaian behera eta Baia Ribabellosatik ibaian behera (toki horretan presio handia izaten da udan). Egoera kritikoa da halaber Zadorra ibaiaren ardatzean, Santa Engrazian, Saladon eta Nerbioi ibaian (Luiando).
- Ardatz nagusietan oinarritutako lagin-puntuen hautaketaren arabera, Gipuzkoaren egoera oso eskasa da beste lurraldeekin konparatuz. Hala ere, saneamenduan egin diren ahaleginek beren emaitzak eman dituztela dirudi, adibidez, Urolaren ardatzean. Oiartzun eta Urumearen ardatzetan emaitza onei eusten zaie, baina Deba, Ego, Oria eta Jaizubiaren kasuan emaitzak txarrak dira.
- Bizkaia muturreko bi kalifikazio dituen lurraldetzat har daiteke, egoera desberdinak dituzten hainbat puntu lagindu baitira. Ner-


bioi eta Ibaizabalen ardatzetako kalitatearen egoera kezagarria da, eta Lea, Artibai, eta Karrantzako arroetan eta Oka eta Butroeko zati gehienetan, berriz, kalitatea ona da.

Oro har, faktore hauek egiten diete kalte Euskal Autonomia Erki-degoko ibaiei: arazketa eta saneamendu gutxiegi (hiriko ur-hondakinak Nerbioi goialdean eta erdialdean, Oria goialdean eta erdialdean), poluzio puntuala (industriako efluenteak), poluzio barreiatua nekazaritzako jarduerengatik, ibaiko habitata aldatzea (nekazaritza eta hirigintzako presioengatik), baliabideen erabilera ezegokia (lurzorua eta uraren ustiapen intentsiboa, adibidez, zentral hidroelektrikoen ondorioz) eta komunitateak aldatzea (espezie aloktonoak sartzeagatik).



Estuarioetako eta kostaldeko urak

INDIZE BIOTIKO OROKORRAREN BILAKAERA




Estazio-kopurua Indize Biotikoaren arabera


	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004
Poluitu gabe	6	2	8	8	8	11	7
Poluzio arina	11	18	10	10	13	9	10
Poluzio ertaina, handia edo izugarria	13	10	12	12	9	10	13
Estazio-kopurua guztira	30	30	30	30	30	30	30

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila.

INDIZE BIOTIKOAREN BILAKAERA (Estuarioak)



INDIZE BIOTIKOAREN BILAKAERA (Kostaldeko urak)



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila.

Oro har, estuarioetako eta kostaldeko uren kalitatea egonkortu edo zertxobait hobetu da, estuarioetako laginak hartzen dituzten 17 estazioetan eta kostaldeko 13 estazioetan 1998az geroztik egindako azterketen arabera, eta desberdintasunak ez dira oso handiak 2000ko kanpainarekin alderatuta. Bestalde, 2004an kalitate oneko estazioak % 23 bakarri ziren; 2003an baino dezente gutxiago (% 37).

Euskal Autonomia Erkidegoko estuarioei eta kostaldeko eremuei faktore hauek egiten die kalte: hiriaren, industriaren eta portuaren presioa; batzuetan eraginkorra ez den saneamendua eta arazketa, dragatze-lanak eta/edo portu-azpiegiturak eta komunitateak aldaztea.

Kostaldean (kostaldeko uretan), 1998z geroztik uren kalitatea hobetu den arren, azken urtean poluitu gabeko kalifikazioa duten estazioak % 62 izatetik (2003an) % 46 izatera (2004an) pasatu dira.

Estuarioen eremuan, arazoa oso bestelakoa da: 2004an, laginketa-puntu gehienek dute gradu bateko ala besteko poluzioa, hain zuzen, % 65ek; 1998an, berriz, % 71k. Barnealdeko lekuetan daude urak egoera txarrean, hau da, ibaiek eragin gehien duten lekuetan.

Nabarmentzekoa da Nerbioiko estuarioan izan den bilakaera ona, bereziki barnealdean. 1998an poluzio izugarria zegoen, eta orain, egoera ezin hobea lortzeko oraindik asko falta den arren, poluzio ertainaren kalifikazioa du. Hobekuntza horren ondorioz, gaur egun ez dago izugarritzko poluzioaren kalifikazioa duen estaziorik.

2004ko kanpainan, Urumea eta Oiartzungo estuarioek izan zituzten emaitzarik txarrenak. Butroe, Barbadun, Bidasoa eta Leak, berriz, kalifikaziorik onenak lortu zituzten.

Informazioaren kalitatea: ★ ★ ★ Handia

2. ADIERAZLEA Karga Poluitzaileak Kontinente Barruko eta Kostaldeko Uretan



■ Ipar Arroko ibaiek itsasoko eta lehorreko eremura isuritako karga poluitzaileen joera positiboa izan zen 1998-2004 epean, saneamendu-azpiegiturak egin zirelako. Azpimarratzekoak dira kobreaken (- % 59), zinkaren (- % 85) eta fosforodun konposatuen (- % 81) eta konposatu nitrogenatuen (- % 56) jaitsierak.

INGURUMEN-HELBURUAK


- Substantzia arriskutsu eta poluitzaileen isurpenak murriztea.
- Lurpeko eta lur gaineko ur degradatuak saneatzea edo araztea.

GARAPEN IRAUNKORRAREN INGURUMEN ESTRATEGIAREN KONPROMISOAK


- 2006rako, Euskal Autonomia Erkidegoan ubide publikoetara edo lurrunen eta itsasoaren arteko eremuetara isuritako guztizko karga poluitzaileak % 50 murriztea, 2001ekin alderatuta.

EGOERAREN AZTERKETA ETA JOERAK:

KARGA POLUITZAILEEN BILAKAERA:
Metal Astunak



KARGA POLUITZAILEEN BILAKAERA:
Mantenugaiak



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila.

Oharra: Erabilgarri dauden datuak isurialde atlantikoko ibaiei buruzkoak dira. Azterketak 1998. urteari egiten dio erreferentzia eta urteko batez besteko emariaren aldaketak zuzenduta daude.

Isurialde atlantikoko ibaietan hartutako laginetan aztertutako **metal astunen** (kadmioa, merkurioa, kobrea, beruna eta zinka) urteko batez besteko balioak txikiagoak dira indarrean dauden kalitate-arauetan ezarritakoak baino¹. Oro har, murrizteko joerari eutsi zaio. Kobreaken eta zinkaren kasuan, ehuneko nabarmen txikitu da (2004an - % 59 eta - % 85, 1998arekiko).

Mantenugaien kargari dagokionez ere beheranzko joera agertzen da, bereziki guztizko fosforoaren (2004an - % 81eko jaitsiera 1998arekiko) eta guztizko nitrogenoaren kasuan (- % 56). Guztizko ortofosfatoaren eta fosforoaren arteko diskordantzia nabarmentzekoa da, beste urteetako informazioarekin konparatuz ortofosfatoaren detekzio-mugak igo egin baitira (2002an eta 2003an).

Informazioaren kalitatea: ★ ★ Ertaina

¹ Emaizta gutxi batzuek gainditzen dituzte 2000ko ekainaren 2ko 995/2000 Errege Dekretuan adierazitako eta lege gisa emandako kalitate-arauak; errege-dekretu horrek substantzia poluitzaile jakin batzuen kalitate-helburuak ezartzen ditu, eta Jabari Publiko Hidraulikoko Erregelamendua -849/1986 Errege Dekretuak onartutakoa aldatzen du.

3. ADIERAZLEA Airearen Kalitatearen indizea



- 2004an, airearen kalitateak izan duen arazo bakarra da gainditu egin dela partikula esekien gehienezko kopurua; ozono troposferikoaren eragina, berriz, desagertu egin da..

INGURUMEN-HELBUURUAK

- Substantzia poluitzaileen emisioak modu integratuan murriztea.

GARAPEN IRAUNKORRAREN INGURUMEN ESTRATEGIAREN KONPROMISOAK

- Europako Batasunak inguruneke airearen (immisioa) kalitateari buruz ezarritako helburuak betetzea.

EGOERAREN AZTERKETA ETA JOERAK:

Airearen kalitatea txarra edo oso txarra izan zen egunen kopurua, eremutan banatuta

EAEKO EREMUAK	2001	2002	2003	2004
Erribera	4	0	0	1
Kostaldea	0	0	3	2
Donostialdea	1	2	10	20
Goierri	3	2	13	26
Deba Ibaizabal	6	4	19	22
Nerbioi Garaia/Enkarterri	2	3	5	3
Arabako Lautada	2	6	14	12
Nerbioi Beherea	5	4	15	10
Egunak, batez beste	2,9	2,6	9,9	12

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila.


EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EREMUAK




- Nerbioi Garaia - Enkarterri
- Nerbioi Beherea
- Kostaldea
- Donostialdea
- Deba Garaia - Ibaizabal
- Goierri
- Arabako Lautada
- Erribera



GIZA OSASUNAREN BABESERAKO PM₁₀-en EGUNEKO BATEZ BESTEKO BALIOA > 50 µg/Nm³ URTEAN 35 ALDITAN BAINO GEHIAGOTAN GAINDITU DUTEN ESTAZIOEN KOPURUA¹



GEHIENEZKO BALIOA 180 µg/Nm³ GAINDITU DEN ALDIEN BATEZ BESTEKO KOPURUA



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila.



Egun, aireari dagozkion zuzentzarauak ebaluatzen eta, partikulen kasuan, hain zorrotzak ez diren irizpideak ezartzen ari da Batzordea. Ondorioz, airearen kalitateak soilik arauekin zerikusia duen hobekuntza izango du, hau da, parametro fisikoekin zerikusirik ez duena. Horregatik, etorkizunean arauen aldaketekin zerikusirik izango ez duen kalitate fisikoaren indizea (µg/m³) ezartzeko aukera aztertzen ari dira, airearen kalitatearen adierazle hobea izango delakoan.

Hala ere, 2003 eta 2004an aurreko ekitaldietan baino bi aldiz gehiagotan gairiditu zen partikula esekien muga-balioa, eta horrek esan nahi du airearen kalitateak okerrera egin duela.

Bestalde, nabarmendu behar da Euskal Autonomia Erkidegoan neurtutako poluitzaileen artean (SO₂, NO_x, PM₁₀, CO, metal esekiak...) PM₁₀ adierazleak bakarrik gairiditu duela balio-muga.

Hauek dira 2004an gizakiaren osasuna babesteko eguneroko batezbestekoa 35 egun baino gehiagotan gairiditu duten estazioak: Alonsotegi, Zornotza, Barakaldo, Basauri, Bilbo, Durango, Erandio, Portugalete, Zierbena, Beasain, Donostia, Eibar, Lezo, Arrasate eta Errearteria. Gehienetan (hamahirutan), airearen kalitatea hobetzeko araudian aurreikusitako Ekintza Prebentiboaren plana lantzen ari dira.

Informazioaren kalitatea: ★ ★ ★ Handia

¹ Betetze-data 2005eko urtarrilaren lehena. 1073/2002 E.D.

4. ADIERAZLEA Poluitzaile Atmosferikoen emisioak



- 1990 eta 2003. urtea bitartean, **substantzia azidotzaileen eta troposferako ozonoaren aitzindarien emisioak** % 14 eta % 11 jaitsi dira hurrenez hurren.
- **SO₂** eta **KOL**en emisioen bilakaeran, berriz, ikusten da Europako Batasunak zehaztutako helburuen bidean gaudela. Ezin da gauza bera esan NO_x-z, emisioak % 8 igo baitira 1990az geroztik.
- 2003an, hiru poluitzaile horien emisioek behera egin dute (NO_x - % 6, SO₂ -% 24 eta KOL - % 9).

INGURUMEN-HELBURUAK


- Produkzio garbiko sistemak sustatzea.
- Substantzia poluitzaileen emisioak modu integratuan murriztea.
- Emisio-arriskuak murriztea.

GARAPEN IRAUNKORRAREN INGURUMEN ESTRATEGIAREN KONPROMISOAK


- 2010erako, Konposatu Organiko Lurrunkorren (KOL) emisioak murriztea 2000n neurtutako konposatuen mailekiko, Europako Batasunak zehaztutako emisio-helburuen arabera.
- 2010erako SO₂-aren emisioak murriztea 2000ko mailekiko, Europako Batasunak zehaztutako helburuen arabera.

EGOERAREN AZTERKETA ETA JOERAK:

SUBSTANTZIA AZIDOTZAIILEEN EMISIOAK (Tona azidotzaile baliokide)




TROPOSFERAKO OZONOAREN SUBSTANTZIA AITZINDARIEN EMISIOAK (Tona PROT baliokide)




Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila.


NO_x-en EMISIOAK



SO₂-en EMISIOAK



KOLen EMISIOAK



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila.

Oharra: NO_x, SO₂ eta KOLen emisioak Euskal Autonomia Erkidegoari buruzkoak dira. Helburuak Espainiarentzat ezarritako berak dira. Baliaok aldatu egin dira 2004ko txostenaren aldean, inbentarioa berrikusi baita; datu berriak kalitate handiagoak dira.

1990-2003 bitartean, **substantzia azidotzaileen emisioak** % 14 jaitsi dira. Emisioak jaitsi dira, batez ere, garraioan erabiltzen diren erregai fosiletako sufreaken edukia murriztu egin delako. Paisaiako zentral termikoaren jarduera txikitu egin da eta, ondorioz, azidotzaileen emisioak % 13 jaitsi dira 2002koekin alderatuta.

1990 eta 2003 bitartean, **troposferako ozonoaren substantzia aitzindariaren emisioa** % 11 jaitsi da, garraioan KOLen emisioak murrizteari esker.

Euskal Autonomia Erkidegokoan 1990-2003ko SO₂ eta KOLei buruzko emaitzak aztertuz, ikus daiteke 2001/81 zuzentarauan Espainiarentzat ezarritako helburuak lortzeko bidean dagoela³. Bestalde, NO_x-en kasuan, badirudi ez dagoela ezarritako helburua lortzeko bidean. 2003an, hiru poluitzaile horien emisioek behera egin dute (NO_x - % 6, SO₂ - % 24 eta KOL - % 9).

Informazioaren kalitatea: ★ ★ Ertaina

³ 2001/81 zuzentarauaren arabera, Espainiarentzat zehaztutako emisio-mugak SO₂-rentzat 746.000 tona dira, NO₂-arentzat 847.000 tona, KOLentzat 662.000 tona eta NH₃-rentzat 353.000 tona.

5. ADIERAZLEA Lurzoru Poluituak: Ikertuak eta Berreskuratutak



1990etik 2004ra, poluituta egon zitezkeen 582 hektarea lurzoru (191 leku) ikertu ziren; berreskuratutak, berriz, 227 hektarea (95 leku). 2004an, lurzoruak ikertzeko eta berreskuratutako joerak gorantz segitu zuen.

INGURUMEN-HELBUURUAK


- Substantzia poluitzaileen isurpenak jatorrian modu integratuan murriztea.
- Lurzoru poluituak berreskuratzea.

GARAPEN IRAUNKORRAREN INGURUMEN ESTRATEGIAREN KONPROMISOAK


- 2006rako, Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoru poluitu publikoen % 20 berreskuratzea, 2001eko datuekin alderatuta.

EGOERAREN AZTERKETA ETA JOERAK:

POLUITUTA EGON DAITEZKEEN LURZORU IKERTUAK



BERRESKURATUTAKO LURZORU POLUITUAK



Iturriak: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila.

1990etik 2004ra, poluituta egon zitezkeen 191 leku ikertu zituzten, 582 hektarea guztira. Ikertutako leku horietatik guztietatik, 95 berreskuratutak zituzten, hau da, 227 hektarea. 95 leku horietatik, 32 titulartasun publikokoak ziren.

2004an, 47 leku ikertu zituzten (44 hektarea), eta horietatik 19 berreskuratutak egin zituzten (19 hektarea).

Informazioaren kalitatea: ★ ★ ★ Handia

6. ADIERAZLEA Biodibertsitatea eta Paisaia



- 34 ornodun-espezie desagertzeko arriskuan daude.
- Azalera totalaren % 11 natur gune babestuetan sartuta dago.
- Lurraldearen % 14 etorkizuneko Korridore ekologikoen sarean sartzeko proposatuta dago.
- Azalaren % 45 ikusizko inpaktu negatiboaren eraginpean dago.

INGURUMEN-HELBUURAK

- Mehatxuak nabarmen urritzea, oinarritzko prozesu ekologikoei eta ekosistemen eboluzio-gaitasunari eusteko.
- Ekosistema naturalak nahiz erdinaturalak eta ekosistema nahiz espezie bereziak indartzea.
- Paisaiek ahalik eta kalitate onena izatea lortzea.

GARAPEN IRAUNKORRAREN INGURUMEN ESTRATEGIAREN KONPROMISOAK

- 2004rako Euskal Autonomia Erkidegoko biodibertsitatearen behatokiaren sarea egitea.
- 2006rako, Euskal Autonomia Erkidegoko korridore ekologikoak ezartzea.
- 2006rako, galzoriko espezie gisa sailkatuta dauden espezieen % 100 kudeatzeko planak finkatzea.
- 2003rako, Euskal Autonomia Erkidegoko Paisaia Berezien eta Aparten Katalogoa prestatzea.
- 2006rako, Euskal Autonomia Erkidegoko naturari eta biodibertsitateari buruzko datuak eta informazioa biltzeko programa sortzea.

EGOERAREN ETA JOEREN AZTERKETA:

Euskal Autonomia Erkidegorako zehaztutako biodibertsitate eta paisaiaren adierazlea **adierazle konposatua** da, habitaten zatitzeari eta konektagarritasunari, espezieen populazioari eta paisaiaren aldaketa-mailari buruzko informazioak osatzen baitu. Adierazle hori kalkulatzeko lehen hurbilketa *2003ko Ingurumen-adierazle-etan* argitaratu zen. Argitalpen horretan agertzen diren egoerei eta joerei buruzko ezaugarri orokorrek oraindik ere indarrean egoten jarraitzen dute. Hurrengo *Ingurumen-adierazleen* argitalpenetan, 2005ekoan barne, eta erabilgarri dagoen informazio-mailak adierazlearen ebaluazio global berria egiten utzi arte, helburua Euskal Autonomia Erkidegoan urtero ematen diren urratsak erakustea da. Monitorizatu nahi diren biodibertsitatearen eta paisaiaren hainbat aldagairen ezagutzan aurrera egiten laguntzen dute urrats horiek.

Euskal Autonomia Erkidegoko biodibertsitatearen ezagutzan eta segimenduan egindako aurrerapenak

Euskal Autonomia Erkidegoko biodibertsitatearen behatokiak sortzea

Euskal Autonomia Erkidegoan biodibertsitatearen hiru behatoki daude, eta horien funtzioa da, besteak beste, biodibertsitateari buruzko datu-basea sortzea eta han mantentze-lanak egitea eta gaikako kartografiak berrikustea eta egitea.

Arriskuan dauden espezieak

2004an, Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko ornodun-populazioen arrisku-mailaren aurretiko ebaluazioa egin zuen,


eta, horretarako, Munduko Kontserbaziorako Batasunaren (IUCN) zerrenda gorriko mailak erabili zituen. Gai horri buruz erabilgarri zegoen informazioa aztertu zen, eta 34 ornodun-espezie desagertzeko arriskuan egongo lirakeela ondorioztatu zen aurrez (hau da, benetan arriskuan egongo lirakeke honela sailkatuko balira: "arrisku kritikoa", "arriskuan" edo "kalteberak"). 2004an, **arriskuan dauden espezieak kudeatzeko hiru plan** onartu ziren (desmana eta bisoi europarra Gipuzkoan eta igaraba Araban). Foru-aldundiek arriskuan dauden 14 ornogabeen (% 50) 7 lurralde-plan onartu dituzte orain arte. Arriskuan dauden landare baskularrei dagokienez, oraindik ez da onartu arriskuan egon daitezkeen 7 espezieen lurralde-planik.

Natur gune babestuak


Gaur egun, Autonomia Erkidegoko azalera osoaren % 11 natur gune babestuen barruan dago, Urdaibaiko Biosferaren Erreserba barne. Natur parke guztiek antolamendu-tresna (Natur Baliabideen Antolamendu Plana - NBAP) dute eta, % 62k, horrez gain, kudeaketa-tresna dauka (Erabilera eta Kudeaketarako Plan Zuzentzailea - EKPZ). Zifra horiek estatuko batezbestekoa gainditzen dute: % 78 eta % 54, hurrenez hurren.

Euskal Autonomia Erkidegoko korridore ekologikoen sarea 2005eko urtarrilean, **Euskal Autonomia Erkidegoko korridore ekologikoen sareari** buruzko dokumentua argitaratu zen. Zatiketa arazoak eragindako espezie eta biotopoak identifikatu ostean, dokumentu horrek kartografikoki mugatu du korridoreen proposamena. Korridore horiek Natura 2000 Sareko guneetan mugitze-

ARRISKUAN DAUDEN ESPEZIEEN PROPORTZIOA 2004an INBENTARIATUTAKO TOTALAREKIKO



"DESAGERTZEKO ARRISKUAN" DAUDEN ORNODUNEN KUDEAKETA-PLANAK, FORU-ALDUNDIEK ONARTUTAKOAK



Iturria: IKT. 2005.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ETA ESPAINIAKO NATUR GUNE BABESTUEN KONPARAZIOZKO EGOERA

	Natur gune babestuen azalera	Natur gune babestuen + Urdaibaiko Biosferaren Erreserbaren azalera	Antolamendu-tresna duten parkeak (NBAP)	Kudeaketa-tresna duten parkeak (EKPZ)	Parkeetako azalera publikoa
EAE	%8,0	%11,1	%100,0	%62,5	%56,2
Espainia	%9,1	%9,1	%77,9	%54,4	%38,0

Iturria: IKT. 2005.

ko aukera ematen dio eskualdean habitata zatitzeko arriskua duen faunari. Sarearen proposamena 275 km² lotura-eremurik, 751 km² lotura-korridorek (bi eremu horiek batera Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldearen % 14 osatzen dute) eta 2.170 km² indargetze-eremurik osatzen dute.

Euskal Autonomia Erkidegoko paisaiaren ezagutzan eta segimenduan egindako aurrerapenak

Orain dela gutxi amaitu da **Euskal Autonomia Erkidegoko Paisaia Berezien eta Aparten Katalogoaren** aurreproiektua. Hor aztertu dira ikus-eremuen (forma, tamaina, erliebea), paisaia-egituraren (dibertsitatea eta aberastasuna) eta azpiegiturak sortutako ikusizko inpaktuen berezko ezaugarriak. Katalogoan bildutako informazioari esker, Euskal Autonomia Erkidegoko paisaiaren aldatze-mailari buruzko bi indize daude erabilgarri:

a) **Ikusizko inpaktu negatiboek eragindako azalera.** Alderdi hauek paisaian sortutako inpaktuak negatibotzat hartu dira: lehentasuneko interesa duten garraio-azpiegituren sarea, harrobiak,

hondakindegia, goi-tentsioko linea elektrikoak, telekomunikazioen errepikagailu handiak eta parke eolikoak. Ikus-eremu guztietan inpaktu horiek eragindako azalera kalkulatu da. Ikusizko inpaktu negatiboek eragindako azalera 321.868 Ha-koa da (% 45). 308 ikus-eremutan (% 50), ikusizko inpaktu negatiboek eragindako azalera ez da % 25era iristen; 153 ikus-eremutan (% 25) inpaktu horiek eragindako azalera % 25 eta % 66 bitartekoa da, eta, 158 ikus-eremutan (% 25), azalaren % 66 baino gehiago ikusizko inpaktu negatiboek eragindako da.

b) **Paisaia naturalen azalera.** Paisaia naturaltzat definitu dira interes naturaleko guneetan kokatuta dauden 10 ha baino gehiago dituzten zatiak, ikusizko inpaktu negatiboak eragiten dituzten elementuen eraginik ez dutenak. Irizpide horrekin, 380 arto identifikatu dira, eta guztira 171.063 Ha-ko azalera dute (Euskal Autonomia Erkidegoko azalaren % 24). Horietako 62tan, paisaia-mota horrek azalaren % 99 baino gehiago osatzen du.

Informazio-kalitatea: ★ ★ Ertaina

7. ADIERAZLEA Berotegi-efektua Eragiten duten Gasen emisioak



- 1990 eta 2004 artean, Euskal Autonomia Erkidegoan sortu eta berotegi-efektua eragiten duten gas nagusien zuzeneko emisioak % 35 igo dira eta, emisio totalak % 22 (zuzeneko emisioak eta zeharkakoak kontuan hartuta).
- 2004ean guztira 20,4 milioi tona CO₂ baliokide isuri ziren (24,6 milioi, zuzeneko eta zeharkako emisioak kontuan hartuta). 2003an baino % 5 gehiago, alegia.
- 2004an, Euskal Autonomia Erkidegoan biztanleko sortu zen BEG kopurua 11,6 tona CO₂ baliokide ingurukoa izan zen, 2003ko EB-15koa (11) eta Espainiakoa (9,7) baino zertxobait altuagoa.

INGURUMEN-HELBUURUAK


- Energia garbietan oinarritutako energia primarioaren hornikuntza sustatzea.
- Jarduera-sektore guztietan energia-hobekuntzaren eraginkortasuna sustatzea.
- Sektorre guztietan energiaren aurrezteia sustatzea.
- Erregai fosilen ordezkapena sustatzea, eta, horien ordezt, erregai berriztagarriak eta berotegi-efektua eragiten duten gas-kantitate txikiagoa duten erregai fosilak erabiltzea.

GARAPEN IRAUNKORRAREN INGURUMEN ESTRATEGIAREN KONPROMISOAK


- 2012rako, berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioak murrizteari buruz Kyoton adostutako helburuak betetzea (Espainiak + % 15 2008-2012 bitartean, 1990 oinarri-urtearekiko).

EGOERAREN AZTERKETA ETA JOERAK:

BEROTEGI-EFEKTUA ERAGITEN DUTEN GASEN EMISIOAK (Milioika tona CO₂ baliokide)




BEROTEGI-EFEKTUA ERAGITEN DUTEN GASEN EMISIOEN 1990 ETA 2004 ARTEKO ALDAKETA SEKTOREKA





Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila.

BEROTEGI-EFEKTUA ERAGITEN DUTEN GASEN EMISIOAK EAEn, EBn eta ESPAINIAN



BEGen EMISIOAK BIZTANLEKO EUROPAKO BATASUNEAN. 2003

CO₂ tona baliokideak biztanleko



Portugal	7,8
Suedia	7,9
Frantzia	9,3
Espainia	9,7
Italia	9,9
Erresuma Batua	11
EB15	11
Austria	11,4
EAE	11,6
Alemania	12,4
Grezia	12,5
Herbehereak	13,3
Danimarka	13,7
Belgika	14,3
Finlandia	16,5
Irlanda	17,2
Luxenburgo	24,5

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila; Europako Ingurumen Agentzia.
Oharra: Euskal Autonomia Erkidegoko datuak 2004koak dira, eta zuzeneko eta zeharkako emisioak hartzen dira kontuan.

Berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioak, guztira, 20,4 milioi tona CO₂ baliokide izan ziren 2004an; hau da, 1990ean, oinarri-urtean, baino % 35 gehiago (14,8 milioi tona). 2003arekin alderatuta, berotegi-efektua eragiten duten gasak % 5 ugaritu dira.

Euskal Autonomia Erkidegoak energia elektrikoa inportatzen duela kontuan hartzen badugu, energia horrek ere emisioak sortzen ditu beste eskualde batzuetan, eta, hori dela eta, gure jarduera sozioekonomikoaren emisioen guztizko batura 24,6 milioi tona CO₂ baliokide da. Horrek 1990⁴ oinarri-urtearekiko % 22ko iguera adierazten du 2004ean.

Sektoreka, 2004an ere energia-sektorea da emisio-sortzaile nagusia (% 33). Horren emisioak % 129 igo dira 1990arekiko. Garraioak, berriz, gas horien emisioen % 25 eragiten du, eta % 95eko iguera

izan du. Industria-sektoreak sortzen du berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioen % 23, 1990etik hona sektorearen emisioak % 26 gutxitu diren arren. 2003 urteari dagokionez, aipatu behar da emisioak murriztu direla industria-sektorean (- % 2) eta emisioak ugaritu energia-sektorean (+ % 13), zerbitzu-sektorean (+ % 12), etxebizitza-sektorean (+ % 9) eta garraio-sektorean (+ % 4).

Inportatutako energia elektrikoa kontuan hartuz, **berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioa** Euskal Autonomia Erkidegoan 2004an 11,6 tona CO₂ baliokide zen, Europako Batasuneko batez-bestekoa (2003)⁵ baino 0,6 tona gehiago.

Informazioaren kalitatea: ★ ★ ★ Handia

4 Kyoton zehaztutako emisioen murrizketen helburuak berotegi-efektua eragiten duten gasen zuzeneko emisio gisa neurtzen dira, hau da, energia-inportazioekin lotutako emisioak gehitu gabe.

5 Europako Batasunean, asimetria garrantzitsuak daude BEGen biztanleko emisio-mailei dagokienez. Alde horiek hainbat faktoreren ondorioz gertatzen dira: produktio-sistemaren egitura, per capita errentaren maila, kontsumitutako energia-mota, urteko batez besteko tenperatura, etab.

8. ADIERAZLEA Hondakinen Sorrera



- 1998-2004 bitartean % 14 handitu da biztanle bakoitzak sortutako **hiri-hondakinen** kopurua. 2004an, 559 kg hiri-hondakin sortu zen biztanleko; hots, 2003an baino 16 kg gehiago (% 3).
- 2003an, 346.491 tona **hondakin arriskutsu** sortu ziren; hots, 2002an baino % 3,3 gehiago.

INGURUMEN-HELBURUAK


- Hondakinak jatorrian minimizatzea eta prebenitzea, eta hondakinen ekoizpena eta kaltegarritasuna urritzea.
- Ezabatzeke diren azken hondakin gutxiago sortzea eta haien arriskua murriztea.

GARAPEN IRAUNKORRAREN INGURUMEN ESTRATEGIAREN KONPROMISOAK

- 2012rako, hiri-hondakinen per capita sorrera 2001eko mailan egonkortzea.
- 2006rako, hondakin arriskutsuen sorrera 2000ko kopuruetan egonkortzea.


EGOERAREN AZTERKETA ETA JOERAK:

HIRI-HONDAKINEN SORRERA BIZTANLEKO (Kg pertsonako)



Oharra: Grafikoan hiri-hondakinak jasotzen dira, etxeak eta industriakoak, merkataritzakoak eta pareko industria-hondakinak barne. Balioak pixka bat aldatu dira 2004ko txostenaren aldean, inbentarioa berrikusi baita; datu berriak kalitate handiagoak dira.

HONDAKIN ARRISKUTSUEN SORRERA (Tona)



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila.

Oharra: Lurzoru poluituak berreskuratzeari eta PCBei dagozkien hondakin arriskutsuak ez dira barne hartzen.

2004an, 1.184.497 tona **hiri-hondakin** sortu ziren, 2003an baino pixka bat gehiago (1.151.202 tona). Biztanle bakoitzak 491 kg sortu zituen 1998an; 2004an, berriz, 559 kg. Hau da, denboraldi horretan % 14 handitu zen hiri-hondakinen kantitatea. Aurreko urtearekin alderatuta, % 3 hiri-hondakin gehiago sortu zen.

2003an, 346.491 tona **hondakin arriskutsu** sortu ziren; hau da, 2002an baino % 3,3 gehiago (335.468 tona) eta 1994an baino % 19 gehiago.

Informazioaren kalitatea: ★ ★ ★ Handia

9. ADIERAZLEA Hondakinen Kudeaketa



- 1998 eta 2004 bitartean, zabortegietan uzteko **hiri-hondakinen** ehunekoa 20 puntu jaitsi da (1998ko % 85etik 2004ko % 65era). Gainera, gaika jasotako etxeko hondakinen kopurua bikoiztu egin da.
- 2003an inbentarioan sartutako **hondakin arriskutsuen** % 100 kudeatu ziren (% 72 1994an) eta % 51 balorizatu (2006rako helburu gisa ezarritako ehunekoa).

INGURUMEN-HELBURUAK

- Berrerabiltzea, birziklatzea eta bestelako balorizazio eta ziklo-itxierak bultzatzea.
- Hondakinak jaso eta ezabatzeko azpiegituren sarea hobetzea.

GARAPEN IRAUNKORRAREN INGURUMEN ESTRATEGIAREN KONPROMISOAK

- 2006rako, % 75eraino murriztea zabortegira eramaten den hiri-hondakinen kantitatea.
- 2006rako, hondakin arriskutsuen balorizazio-tasa % 50 handiagotzea, 2000ko datuen aldean.

EGOERAREN AZTERKETA ETA JOERAK:


HIRI-HONDAKINEN TRATAMENDUA (Tona)




Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila.



ETXEKO HONDAKINEN GAIKAKO BILKETA (Tona)



HONDAKIN ARRISKUTSUEN KUDEAKETA



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila.

2004an sortutako **hiri-hondakinen** % 65 hondakindegietara eram ziren, eta % 35 balorizatu ziren. Hiri-hondakinen guztizkoarekin alderatuta, hiri-hondakin balorizatuaren ehunekoa handitu egin da 1998tik (% 15) 2004ra (% 35).

Etxeko hondakinen gaikako bilketaren (gero birziklatzeko) bilakae-rak joera positiboa du. Izan ere, 1998an, 85.774 tona etxeko hondakin jaso ziren, eta, 2004an, 165.797 tona. 2004an birziklatu ziren etxeko hondakin gehienak paperaren eta kartoiaren (67.771 tona) eta beiraren (42.614 tona) gaikako bilketakoak izan ziren.

1994an, hots, Euskal Autonomia Erkidegoko **hondakin arriskutsuen** lehenengo inbentarioa egin zen urtean, sortutako hondakin arriskutsuen % 72 kudeatzen ziren. 1998tik aurrera, hondakin arriskutsuen % 100 kudeatzea lortu zen. 2003an, 176.807 tona balorizatu ziren guztira, hots, sortutako hondakin arriskutsuen % 51 (2006rako helburu gisa ezarritako tasa).

Informazioaren kalitatea: ★ ★ ★ Handia

10. ADIERAZLEA Zarata



- Euskal Autonomia Erkidegoko lurren % 9,3k errepide-sarearen ondoriozko zarata-maila altuak jasaten dituzte, eta % 2,9k trenbide-sarearen ondoriozkoak
- Euskal Autonomia Erkidegoko 94 udalerrik egin behar dute garraio-sareetako zirkulazioak eragindako zaraten mapa. Horietatik 21 hasi dira dagoeneko mapa egiten.

INGURUMEN-HELBURUAK


- Erradiazioen eta zaraten emisio kaltegarriak murriztea.

GARAPEN IRAUNKORRAREN INGURUMEN ESTRATEGIAREN KONPROMISOAK


- 2004rako, zarata handiak jasaten dituen biztanleriaren egoera-diagnostikoa egitea eta zarata murrizteko estrategia prestatzea.

EGOERAREN AZTERKETA ETA JOERAK:

ERREPIDE-SAREAN SORTUTAKO ZARATA JASATEN DUEN LURRAREN EHUNEKOA



TRENBIDE-SAREAN SORTUTAKO ZARATA JASATEN DUEN LURRAREN EHUNEKOA



Iturriak: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila.

Errepide-sarean sortutako zarataren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko lurren % 9,3k Munduko Osasun Erakundeak (MOE) gomendatutakoa baino zarata handiagoa jasaten dute. Kantitate hori % 3,6koa da gauetz. Trenbide-sarean sortutako zarata dagokionez, lurren % 2,9k 55 dB(A)-etik gorako zarata jasaten ditu.

Zarataren 37/2003 Legeari jarraikiz, Euskal Autonomia Erkidegoko 94 udalerrik garraio-sareetako zirkulazioak eragindako zarataren mapa egin behar dute. Gaur egun, 21 udalerrri ari dira zarata-mapa hori egiten.





ZARATA-MAPAK EGITEN ARI DIREN UDALERRIAK

UDALERRIA	DIAGNOSTIKOA	EKINTZA PLANA	JARDUERAK GAUZATZEN
Dulantzi	●		
Amurrio	●		
Andoain	●		
Arrasate	●	●	
Astigarraga	●		
Azkoitia	●	●	
Azpeitia	●	●	●
Beasain	●		
Bermeo	●	●	●
Bilbo	●	●	●
Donostia	●	●	
Erandio	●		
Gernika	●		
Hernani	●	●	●
Iurreta	●	●	
Lasarte	●	●	
Loiu	●		
Mungia	●	●	●
Trapaga	●	●	
Gasteiz	●	●	●
Zarautz	●		

Informazioaren kalitatea: ★ ★ Ertaina

11. ADIERAZLEA Ingurumen-faktoreek Osasunean eragiten dituzten Ondorioak



- 1990etik 2004ra ez da aurkitu aztertutako lau metal astunei dagozkien gehieneko hartze-maila onargarrien balioak gainditu dituzten laginik.
- 2004an, ez da atzeman urak eragindako agerraldirik. Elikagaiak eragindako agerraldiei dagokienez, aurreko urteekin alderatuta, murriztu egin da agerraldien eta kaltetutako pertsonen kopurua.

INGURUMEN-HELBURUAK


- Erradiazioen eta zaraten emisio kaltegarriak murriztea.
- Lan-osasuna eta ingurumena modu integratuan kudeatzea bultzatzea.
- Elikagaien segurtasuna bermatzea.

GARAPEN IRAUNKORAREN INGURUMEN ESTRATEGIAREN KONPROMISOAK


- 2003rako, ingurumen-faktoreek osasunerako izan ditzaketen arriskuak behatzeko sistema bat martxan izango da. Sistema horren bidez, arriskuaren intentsitatea, banaketa eta bilakaera ezagutuko dira, eta horiei lotutako osasun-arriskuak baloratu ahal izango dira.
- 2006rako, eragin handiena duten elikagaien toxiinfekzioen prebentzio eta kontrolerako plan integrala martxan jartzea, produkzio primariotik hasi eta kontsumitaileraino arte.

EGOERAREN AZTERKETA ETA JOERAK:


BERUNAREN HARTZE-MAILAK




MERKURIOAREN HARTZE-MAILAK



KADMIOAREN HARTZE-MAILAK




ARTSENIKO EZ-ORGANIKOAREN HARTZE-MAILAK




Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila.

ELIKAGAIK ERAGINDAKO URTEKO AGERRALDIKOPURUA ETA KALTETUEN KOPURUA



URAREN BIDEZKO TOXIINFEKZIOEN URTEKO AGERRALDIKOPURUA ETA KALTETUEN KOPURUA



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila.

Metal astunak (beruna, kadmioa, merkurioa eta artsenikoa) dietaren bidez hartzea

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak Euskal Autonomia Erkidegoan kontsumitzen diren elikagaiek zenbat berun, merkurio, kadmio eta artseniko (gutzizkoa eta ez-organikoa) duten aztertzen du Dieta Osoaren azterketaren bidez. Kalkulatu diren metalen hartze-mailen ehunekoak aldatzekoak dira erreferentziazko balioekin alderatuta, hau da, % 1 eta % 40 bitartekoak dira. 1990etik 2004ra, ez da aurkitu lau metal astunei dagozkien gehieneko hartze-maila onargarrien balioak gainditu dituzten laginik.

Urak eta elikagaiek eragindako toxiinfekzioak

2004an, aurreko urtearekin alderatuta, elikagaiek eragindako agerraldien eta kaltetutako pertsonen kopurua murriztu egin da. Ez da atzeman urak eragindako agerraldirik.

Informazioaren kalitatea: ★★ Ertaina

Osasuna eta ingurumena lotzen dituen adierazlea definitzen aurrera egitea aurreikusi da. Adierazle horretan kontuan hartuko da, besteak beste, poluzio atmosferikoak osasunean duen eragina.

12. ADIERAZLEA Ingurumenean Eragina duten Gertakariak



■ Azken bost urteetan, ingurumenean eragina duten gertakarien kopurua txikitu egin da; beraz, bukatu da 1996tik 1999ra izandako joera negatiboa.

INGURUMEN-HELBURUAK


- Substantzia arriskutsu eta poluitzaileen emisioak eta isuriak murriztea

GARAPEN IRAUNKORRAREN INGURUMEN ESTRATEGIAREN KONPROMISOAK

- Ingurumeneko arau-hausteak zaintzeko eta kontrolatzeko plan eraginkor eta koordinatu bat ezartzea, horien kontra egin eta gerta ez daitezten. 2003-2007/2007-2012 programa.

EGOERAREN AZTERKETA ETA JOERAK:

INGURUMENEAN ERAGINA DUTEN GERTAKARIAK



GERTAKARI-MOTA	1996	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004
Istripu industrialia	17	25	30	52	44	31	25	25	14
Matxura	3	3	4	7	6	2	3	3	1
Likidoen isurketa	9	12	17	26	16	13	8	3	1
Leherketa	1	1	1	1	1	-	-	1	-
Gasen ihesa	1	1	2	4	3	3	5	8	4
Sutea	3	8	6	14	18	13	9	10	8
Istripua garraioan	16	11	11	20	20	20	17	11	8
Merkantzia arriskutsuak errepidez garraiatzea	10	4	3	7	8	5	7	7	1
Konbentzionala, errepidez garraiatzea	3	4	8	9	8	11	6	4	4
Itsasoz garraiatzea	2	-	-	3	1	3	-	-	-
Trenbidez garraiatzea	1	3	-	1	3	1	4	-	3
Hondamendi naturala	3	4	0	0	0	0	0	1	0
Uholdea	-	4	-	-	-	-	-	1	-
Lur-mugimendua	3	-	-	-	-	-	-	-	-
GERTAKARIAK GUZTIRA	36	40	41	72	64	51	42	37	22

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila.



1996-2004 denboraldia aztertuta, ikusten da 1999an joera aldatu egin zela, Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumenean eragina duten gertakariei dagokienez. Izan ere, 1996an 36 gertakari erregistratu ziren, 1999an, berriz, 72, eta, gero, behera egin zuten: 2004an, 22 gertakari izan zuten eragina ingurumenean.

Industria-sektorean izaten dira ingurumenean eragina duten gertakari gehien. Ohikoenak suteak (2004an, 8) eta, 2003tik aurrera, gas-ihesak izaten dira; ondoren, likido-isuriak datoz. Garraio-istripuak ere mehatxu arriskutsuak dira ingurumenerako, merkantzia

arriskutsuak garraiatzean gertatzen direnak, batik bat. 2004an 8 istripu gertatu ziren, eta, horietatik bakarra gertatu zen merkantzia arriskutsuak garraiatzean.

Azken urteetako ingurumen-larrialdien kausa nagusia istripu industrialak izan dira, lege-eskakizunei eta aurrerapen teknologikoei esker, instalazio industrialen segurtasuna hobetzen ari den arren.

Informazioaren kalitatea: : ★ ★ ★ Handia

13. ADIERAZLEA Ur-kontsumoa



■ 2001-2004 aldian, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetan, ur-kontsumoak ia egonkortuta daude, biztanleen eta gainerako ur-kontsumitzaileen sektoreen egonkortasunarekin bat etorritik.

INGURUMEN-HELBURUAK

- Ura aurreztea bultzatzea.
- Iraunkortasunari laguntzen ez dioten ura kontsumitzeko ohiturak aldatzea sustatzea.
- Uraren erabileran eraginkortasuna areagotzea.

GARAPEN IRAUNKORRAREN INGURUMEN ESTRATEGIAREN KONPROMISOAK

- 2012rako, biztanleko ur-kontsumoa handitzeko joerari buelta ematea, eta guztizko ur-hornikuntzako (presio handikoa eta txikikoa) ur-isuriak % 20 murriztea, erreferentzia-urtetzat 2002a hartuta.

EGOERAREN AZTERKETA ETA JOERAK:

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko ur-eskaria aztertu zuen 2002an eta 2003an. Azterketa horren bidez, 2001eko guztizko kontsumoa finkatu da, eta ur-eskaria kalkulatzeko metodologia normalizatua ezarri da, eskariaren bilakaeraren segimendua egiteko. Azterketa horren emaitzak 2004ko Ingurumen Adierazleen edizioan argitaratu ziren.


Ondoren, **Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetak eskariari** buruzko datuak azaltzen dira. Hiriko eskaria udalaren eta udalaz gaindikoa hartune eta azpiegituren bitartez ematen den eskaera orokorra da. Datuek **presio txikiko** eskaria (kontagailuek erregistratzen dutena) eta **presio handiko** eskaria adierazten dituzte (presio txikiko eskaria eta neurtu gabeko ur-hartzeen –legezkoak zein iruzurrezkoak–, kontagailuen azpikontaketan eta sareko ur-ihesen kontrolatu gabeko gastua).

Datu horien lehen azterketa batean, esan daiteke, oro har, 2001-2004 aldian, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetan ur-kontsumoak ia egonkortuta daudela, biztanleen eta gainerako ur-kontsumitzaileen sektoreen egonkortasunarekin bat etorritik. Azterketa zehatzago batek hiru hiriburuetan antzeko bilakaera izan dela adierazten du: presio txikiko kontsumoa oso gorabehera gutxiarekin, Donostiaren kasuan izan ezik. Baliteke Donostia salbuespena izatea biztanle-kopurua handitu delako eta presio handiko kontsumoak pixkanaka jaitsi direlako. Presio handiko kontsumoek sareetan etekin hobek egotea adierazten dute, hau da, kontrol gabekoak murriztea. Edonola ere, uste da egungo egoera asko hobetu daitekeela Euskal Autonomia Erkidegoko presio txikiko sareen kudeaketarekin lotuta.


Informazioaren kalitatea: ★ ★ Ertaina

HIRIKO ESKARIAREN BILAKAERA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HIRIBURUETAN

Presio txikiko hiriko eskaria



Presio handiko hiriko eskaria



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila.

14. ADIERAZLEA Energia-kontsumoa



■ Energiaren azken kontsumoa % 38 handitu zen 1990-2004 epean. 2004an, % 4,6 egin zuen gora aurreko urtearekin alderatuta.



■ 1990 eta 2004 artean euskal ekonomiaren energia-intentsitatea % 13 jaitsi da; bestalde, 1997tik energia-intentsitatea % 2 handitu da.

■ Energia berriztagarriak Euskal Autonomia Erkidegoko energia-eskariaren % 4,9 dira; 1990 geroztik % 77 handitu da kopuru hori.

INGURUMEN-HELBUURUAK


- Energia-eraginkortasuna hobetzea sustatzea jarduera-sektore guztietan.
- Sektorre guztietan energiaren aurrezteia sustatzea.
- Energia berriztagarriak erabiltzea sustatzea.

GARAPEN IRAUNKORRAREN INGURUMEN ESTRATEGIAREN KONPROMISOAK


- Berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioak murrizteko Kyoton adostutako helburuak 2012rako betetzean laguntzea.

EGOERAREN AZTERKETA ETA JOERAK:

AZKEN ENERGIA-KONTSUMOA SEKTOREKA (Ktpb)




AZKEN ENERGIA-KONTSUMOA SEKTOREKA




Iturria: Energiaren Euskal Erakundea eta EUSTAT.


AZKEN ENERGIA-KONTSUMOA ENERGIA-ITURRIAREN ARABERA BANATUTA. 1990



AZKEN ENERGIA-KONTSUMOA ENERGIA-ITURRIAREN ARABERA BANATUTA. 2004



ENERGIA-INTENTSITATEA, ENERGIA-KONTSUMOA eta BPG



Iturria: Energiaren Euskal Erakundea eta EUSTAT.
Oharra: BPG bolumen-indize kateatua.

2004an, Euskal Autonomia Erkidegoak 5.574 ktpb kontsumitu zituen, eta industriak eta garraioak kontsumitu zuten energia horren zatirik handiena (hurrenez hurren, % 48 eta % 31). Etxeetako kontsumoak % 11 hartu zuen, zerbitzu-sektoreak % 7, eta lehenengo sektoreak % 3. 2004an, azken energia-kontsumoa % 4,6 handitu zen aurreko urtearen aldean; industria-, garraio-, zerbitzu- eta etxebizitza-sektoreek eragin zuten gehien igoeran. Aipatu beharrekoa da azken bi urteetan industria-sektorearen energia-kontsumoa % 8 igo dela, eta 1990eko maila baino % 7 gorago dagoela.

1990 eta 2004 bitartean, garraio-sektoreko energia-kontsumoa % 88 handitu da, eta etxebizitza-sektorekoa, % 55. Bestalde, zerbitzu-sektorearen kontsumoa % 155 hazi da; hala ere, lehen adierazi dugunez, azken energia-kontsumoaren % 7 baino ez du hartzen. Industria-sektorearen energia-kontsumoa % 7 handitu da epe horretan.

Petrolioaren eratorriak dira Euskal Autonomia Erkidegoko energia-iturri nagusia (kontsumitutako guztiko energiaren % 37). Elektrizitateak azken energia-kontsumoaren % 28 hartzen du, eta eskariaren % 24 gas naturalak betetzen du. Energia berriztagarriak Euskal Autonomia Erkidegoko energia-eskariaren % 4,9 dira; 1990 geroztik % 77 handitu da.

Energiaren erabileraren eraginkortasunari dagokionez, 1990 eta 2004 artean euskal ekonomiaren energia-intentsitatea % 13 txikitu da; hau da, sortzen den BPGko euro bakoitzeko, 1990ean baino % 13 energia gutxiago erabiltzen da. Bestalde, 1997az geroztik euskal ekonomiaren energia-intentsitatea % 2 handitu da, nahiz eta 2000z geroztik parametro hau egonkor egon.

Informazioaren kalitatea: ★ ★ ★ Handia

15. ADIERAZLEA **Materialen Kontsumoa**



■ 1990 eta 2003 bitartean, materialen kontsumo osoa % 24 hazi zen: 1990ean, biztanleko 79 tona kontsumitzen zen, eta 2003an, 97 tona.



■ 1990-2003 aldian, baliabide materialen kontsumoaren eraginkortasuna % 22 hazi zen. Hala ere, materialen erabileraren eraginkortasuna % 7 jaitsi da 1997 eta 2003 bitartean.

INGURUMEN-HELBURUAK


- Materialen erabileran eraginkortasuna areagotzea.
- Materialak aurrezteko bultzatzea.
- Material berriztagarriak erabiltzea sustatzea.

GARAPEN IRAUNKORAREN INGURUMEN ESTRATEGIAREN KONPROMISOAK

- 2006ko per capita Material Behar Totala (MBT) 1998koen parekoa izatea.

EGOERAREN AZTERKETA ETA JOERAK:

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO MeBG BIZTANLEKO (Tona biztanleko)




Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila;

Oharra: Balioak aldatu egin dira 2004ko txostenaren aldean, adierazlea kalkulatzeko metodologia berrikusi egin delako; datu berriak kalitate handiagokoak dira.



ERAGINKORTASUN MATERIALA, MBT eta BPG



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila; EUSTAT.

Oharra: Balioak aldatu egin dira 2004ko txostenaren aldean, adierazlea kalkulatzeko metodologia berrikusi egin delako; datu berriak kalitate handiagokoak dira.

1990 eta 2003 bitartean, Material Behar Totala (MBT) % 24 areagotu zen Euskal Autonomia Erkidegoan: 1990ean, biztanleko 79 tona izan ziren, eta 2003an, 97 tona. Baliabideen beharizanen gehikuntza hori mineral metalikoen inportazioen hazkundeagatik gertatu da nagusiki, baita etxebizitzak eta bide-azpiegiturak eraikitzean egindako indusketetan desplazatutako materialen hazkundeagatik ere. Euskal Autonomia Erkidegoan 2003rako kalkulaturako MBTaren balioa (97 tona biztanleko) oso bestelakoa da Espainian 2000rako eta Europako Batasunean 1997rako kalkulaturako aldean (50 tona inguru biztanleko). Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomian industriari duen indarraren ondorio da hori. Izan ere,

bereziki indartsua da industria astuna, eta horrek material ugari eskatzen du. 2000tik aurrera, materialen kontsumoa egonkortu egin da; hala ere, 2006rako jarritako helburua baino handiagoa izango da (81 tona biztanleko).

Baliabideen kontsumoaren eraginkortasuna –BPG prezio konstantean zati MBT– % 22 areagotu zen 1990-2003 aldirian. Hala ere, materialen erabilaren eraginkortasuna % 7 jaitsi da 1997 eta 2003 bitartean.

Informazioaren kalitatea: ★ ★ ★ Handia

16.

ADIERAZLEA

Lurzoruaren Artifizializazio Intentsitatea



- 1994 eta 2005 bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoko artifizializatutako azalera % 5,2 izatetik % 6,5 izatera pasatu da.
- 2005ean, 452 hektarea artifizializatu dira. Kantitate hori garrantzitsua da, nahiz eta azken bi urteetako igoera aurreko urteetako batez besteko igoerak baino txikiagoa izan.

INGURUMEN-HELBUURUAK

- Lurzoruak artifizializatzeko prozesuak eta lurzoruak hondatzeko erritmoa pixkanaka murriztea eta nekazaritzako lurrak babestea.
- Hirigintzako plangintza lurralde-antolamenduko tresnen helburuetara eta iraunkortasun-irizpideetara egokitzea sustatzea.


GARAPEN IRAUNKORRAREN INGURUMEN ESTRATEGIAREN KONPROMISOAK

- Lurzoruaren kontsumoa galaraztea dentsitate baxuko garapena sustatuta, eraikuntza-dentsitate altuagoak sartuta lurzoru egokienetan, lurralde-antolamenduko tresnen arabera.


EGOERAREN AZTERKETA ETA JOERAK:

ARTIFIZIALIZATUTAKO LURZORUAREN AZALERAREN BILAKAERA (Hektareak)


Etxebizitzetarako kalifikatutako azalera




Jarduera ekonomikoetarako erabiltzen den



Garraio-azpiegituretarako erabiltzen den azalera



Azalera totala



Iturria: Eusko Jurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila. Sustapen Ministerioa.

Oharrak: Bizilekuen azalera kalkulatzeko, udal-plangintzak kalifikatutako lurzoruaren datua hartu da kontuan; izan ere, kalifikazio horrek urbanizatzea dakarrela jotzen da, eta, beraz, lurzoruaren egoera naturala aldatu egin dela. Jarduera ekonomikoetarako azalera kalkulatzeko, jarduera ekonomikoetarako benetan erabiltzen den lurzoruaren datua hartu da kontuan (udal-plangintzak jarduera ekonomikoetarako kalifikatutako lurzoruaren datua nabarmen handiagoa da). Garraio-azpiegituren azalaren 2003ko datuak ez daude erabilgarri. 2004 eta 2005 urteetako azalera guztia kalkulatzeko, 2003an garraio-azpiegituretarako erabilitako azalera erabili da. 2004ko txostenarekin alderatuz gero, zenbaki batzuk apur bat aldatu dira, horietako batzuk berrikusi egin baitira, datuen kalitatea hobetzeko.



ARTIFIZIALIZATUTAKO AZALEREN ALDAKETA, EPEEN ARABERA

	1994-2000		2000-2003		2003-2004		2004-2005		1994-2005	
	Ha	%	Ha	%	Ha	%	Ha	%	Ha	%
Etxebizitzetarako kalifikatutako azalera	2.367	%16,3	1.247	%7,4	1.035	%5,7	205	%1,1	4.854	%33,5
Jarduera ekonomikoetarako erabiltzen den azalera	2.002	%35,2	485	%6,3	174	%2,1	247	%3,0	2.908	%51,2
Garraio-azpiegituretarako erabiltzen den azalera	1.425	%2,3	253	%1,3	-	-	-	-	671	%9,5
GUZTIRA	5.794	%12,6	1.985	%4,5	1.209	%2,7	452	%1,0	9.440	%24,9

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila.

1994 eta 2005 bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoko artifizializatutako azalera % 5,2 izatetik % 6,5 izatera pasatu da, hau da, 223 m²/biztanle. Epe horretan, azalera hori % 25 hazi da, hau da, 9.440 ha.

2004-2005 epean, artifizializatutako azalera nabarmen handitzen jarraitu du Euskal Autonomia Erkidegoan. Etxebizitzetarako kalifikatutako azalera 205 ha handiagoa da (azken bi urteetan % 1,1 igo da), eta jarduerak ekonomikoetarako erabiltzen den azalera 247 ha handiagoa da (azken bi urteetan % 3 igo da). Bestalde, 2003an garraio-azpiegituretarako erabili zen azalera 2000n baino 253 ha handiagoa izan zen (% 1,3 igo zen). Etxebizitzetarako kalifikatutako azalera izan den igoera txikitu eta egonkortu egin da aurreko azken bi urteekin alderatuta (2003-2004 epean % 5,7 igo zen), eta jarduerak ekonomikoetarako erabiltzen dena, berriz, nabarmen handitu da tarte berarekin alderatuta.

Etxebizitzetarako kalifikatutako azalera dagokionez, eraikuntza-dentsitatearen datuek (etxebizitza-kopurua/hiri-hektarea) erakusten dute alde argia dagoela Arabaren (isurialde mediterraneo) eta Bizkaia eta Gipuzkoaren (isurialde kantauriarra) artean, 30 etxeb./ha eta 70 etxeb./ha inguru, hurrenez hurren.

BIZITOKITARAKO LURZORUAREN DENTSITATEA (Etxebizitza-kopurua/hektarea)

	2004	2005
Araba	29,08	29,34
Bizkaia	69,99	68,32
Gipuzkoa	68,05	68,52

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila.

Bizkaia eta Gipuzkoa lurralde historikoetako dentsitate erlatiboak handiak dira, eraikitze orografikoki egokia den lurzoruen azalera oso urria delako. Hori dela eta, garapen berriak dentsitate ertain eta handiak kontuan hartuta planteatu dira (kostaldeko udalerrietan nolabaiteko garrantzia duten dentsitate txikikoak izan ezik).

Informazioaren kalitatea: ★ ★ Ertaina

17. ADIERAZLEA Ingurumena Babesten egiten den Gastu Publikoa



- Ingurumeneko gastu publikoa etengabe hazi da (+ % 66) 1995-2004 epean (2004an, horren % 10).
- Gainerako autonomia-erkidegoekin alderatuz gero, Euskal Autonomia Erkidegoa bosgarrena da baldin eta kontuan hartzen bada ingurumena babesten egiten den gastu osoa BPGrekiko, eta hirugarrena, berriz, baldin eta kontuan hartzen bada ingurumena babesten egiten den gastu osoa biztanleko.


INGURUMEN-HELBURUAK

- 2002-2006ko Ingurumeneko Esparru Programan ageri diren ingurumen-helburuak betetzea.

GARAPEN IRAUNKORRAREN INGURUMEN ESTRATEGIAREN KONPROMISOAK

- 2002-2006ko Ingurumeneko Esparru Programako konpromisoak betetzea.


EGOERAREN AZTERKETA ETA JOERAK:



Iturriak: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila; EUSTAT.

Oharra: Ingurumena babesten egindako gastu publikoa 2005eko prezio konstanteen arabera adierazita dago.

INGURUMENA BABESTEN EGINDAKO GASTU OSOA BIZTANLEKO. 2001




Iturriak: Bertan landua, Estatistika Institutu Nazionalaren datuak baliatuta.

Oharra: Ingurumena babesten egindako gastu osoak sektore publikoak eta pribatuak egindakoa hartzen du bere baitan.

1995az geroztik, ingurumena babesteko eta baliabide naturalak kudeatzeko gastu publikoa % 66 gehitu da (2004an, 622 milioi euro gastatu ziren). Ingurumena babesten egindako gastu publikoa gastu publiko osoaren % 5,35 zen 2003an, azkeneko urteetako baino apur bat handiagoa.

Estatuko gainerako autonomia-erkidegoekin alderatuz gero, Euskal Autonomia Erkidegoa bosgarrena da baldin eta kontuan hartzen bada ingurumena babesten egin den gastu osoa BPGarekiko (% 2,1), eta aurretik ditu Nafarroa (% 2,8), Gaztela eta Leon (% 2,5),

INGURUMENA BABESTEN EGINDAKO GASTU OSOA, BPGAREN EHUNEKOTAN ADIERAZIA. 2001



Andaluzia (% 2,2) eta Galizia (% 2,1). Estatuko batezbestekoa, ostera, BPGaren % 1,8 da.

Ingurumena babesten egiten den gastu osoa biztanleko hartzen bada kontuan, Euskal Autonomia Erkidegoa hirugarrena da (414 € biztanleko), eta aurretik ditu Nafarroa (555 € biztanleko) eta Gaztela-Mantxa (436 € biztanleko). Estatuko batezbestekoa, ostera, 291 € da biztanleko.

Informazioaren kalitatea: ★ ★ ★ Handia

18. ADIERAZLEA Nekazaritza sektoreko Jarduerak



- 2003an, Euskal Autonomia Erkidegoan nekazaritzarako erabiltzen zen azaleraren % 7,2n ingurumeneko eta nekazaritzako neurriak aplikatu ziren.
- 1998 eta 2004 urteen artean, nekazaritza ekologikorako erabilitako azalera % 163 hazi zen.
- 28.000 Ha-ko baso-azalera ziurtagiria du, hau da, Autonomia Erkidegoko baso-azalera osoaren % 7k du ziurtagiria.

INGURUMEN-HELBUURUAU


- Produkzio garbiko sistemak sustatzea.
- Elikagaien segurtasuna bermatzea.
- Lurraldeko paisaia-baliabideen babesa sustatzea.
- Nekazaritza-sektorean produkzio integratua sustatzea.

GARAPEN IRAUNKORRAREN INGURUMEN ESTRATEGIAREN KONPROMISOAK

- 2006rako Ingurumena eta nekazaritza bateratzen dituen 55.000 ha-ko azalera eta 2020rako 100.000 Ha-ko azalera lortzeko aukera emango duten ingurumeneko eta nekazaritzako neurriak sustatzea eta lurralde mailako politika espezifikoak ezartzea.
- 2006rako, nekazaritza ekologikorako 300 Ha-ko azalera erabiltzea; 2012rako, 600 Ha-koa; eta 2020rako, 2.000 Ha-koa.
- 2006rako, Euskal Autonomia Erkidegoko basoen kudeaketa iraunkorra ziurtatzeko eta sektorearekin lotutako produktuen etiketatzea sustatzeko sistema abian jartzea.

EGOERAREN AZTERKETA ETA JOERAK:


NEKAZARITZAKO ETA INGURUMENEN LAGUNTZA JASOTZEN DUEN AZALERAREN BILAKAERA EAEn



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saila.




EAEen NEKAZARITZA EKOLOGIKORAKO ERABILTZEN DEN AZALERAREN BILAKAERA



Iturria: EAEko Nekazaritza Ekologikoa Arautzeko Kontseilua.

CEFC ZIURTAGIRIA DUEN BASO-AZALERA EAEn. 2004an



Iturria: EAEko Forestalisten Konfederazioa.



EAEko NEKAZARITZAKO ETA INGURUMENEN NEURRIAK, HELBURUEN ARABERA

		Azalera (Ha)		
		2001. urtea	2002. urtea	2003. urtea
1. Helburua: Natur baliabideak babestea	Lurzoruaen kalitatea	11.240	14.452	14.782
	Uraren kalitatea	231	249	292
2. Helburua: Biodibertsitatearen zaintza edo hobekuntza	Nekazaritza-lurretan flora eta fauna babestea	-	-	-
	Natur balio handiko nekazaritza-habitata kontserbatzea	-	6	55
	Animalia-arrazak edo arriskuan dauden barietateak babestea	6 Ha. 356 UGM	13 Ha. 524 UGM	21 Ha. 680 UGM
3. Helburua: Paisaien zaintza eta hobekuntza		1.925	2.204	2.319
Nekazaritzako eta ingurumeneko neurriek babestutako azalera totala		13.402	16.924	17.469

Nekazaritzako eta ingurumeneko neurriek babestutako azalera handiagoa da urtetik urtera. 2003an, Euskal Autonomia Erkidegoan nekazaritzarako erabiltzen zen azalaren % 7,2n ingurumeneko eta nekazaritzako neurriak aplikatu ziren, eta gainditu egin ziren 2000-2006 urteetarako Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza Garpenera Iraunkorrerako Planeko aurreikuspenak. Kontratuen % 48,5 eta azalaren % 86,9 natur baliabideak babestera zuzendu ziren; aldiz, nekazaritzako biodibertsitatea edo ekologikoki sentikorrek diren inguruneak babestera zuzendutakoak oso urriak dira oraindik, edo ez daude.

2004an, Euskal Autonomia Erkidegoa 909 ha erabiltzen ziren nekazaritza ekologikorako, 1998an baino 565 ha gehiago. Hau da, epe horretan, nekazaritza ekologikoa % 163 hazi zen.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoa izan da, estatu osoan, baso-ziurtagiriaren sistema garatzen lehena. 2004an, 27.992 Ha zeuden PEFC ziurtagiriaren (baso-ziurtagiriaren Europako herrialdeen sistema) barnean. Gipuzkoan, 13.030 Ha daude ziurtagiriaren barnean; Araban, 7.956; eta Bizkaian, 7.006. Mendien jabeagoari dagokionez, ziurtagiria duen azalaren % 82 mendi publikoei dagokie (22.904 Ha), eta mendi pribatuei % 18 soilik dagokie (5.089).

Informazioaren kalitatea: ★ ★ ★ Handia

19. ADIERAZLEA Tokiko Agenda 21 Euskal Autonomia Erkidegoko Udalerrietan



- Euskal Autonomia Erkidegoko 192 udalergi daude Tokiko Agenda 21 ezartzeko prozesuan inplikatur, eta horietatik 66tan hasi dira ekintzak egiten.
- 5.000 biztanletik gorako Euskal Autonomia Erkidegoko udalergi guztiek diseinatuta dute Tokiko Agenda 21eko programa.
- 2004-2005 ikasturtean, 130 ikastetxek dute Eskolako Agenda 21, eta 45.534 ikaslek eta 2.881 irakaslek hartu dute parte.

INGURUMEN-HELBURUAK


- Hiri kontsolidatua berri eta birgaitu dadin bultzatzea.
- Hiri-eremuen diseinua erakargarriago egitea eta bizi-kalitatea hobetzea.
- Hirigintzako plangintza lurralde-antolamenduko tresnen helburuetara eta iraunkortasun-irizpideetara egokitzea.

GARAPEN IRAUNKORAREN INGURUMEN ESTRATEGIAREN KONPROMISOAK

- 2006rako 5.000 biztanle baino gehiago dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko udalergi guztiek, banaka zein eskualdeka, beren Tokiko Agenda 21en programa diseinatuta izatea.
- 2006rako, derrigorrezko hezkuntzako ikastetxeen % 50etan Eskolako Agenda 21 ezartzea.

EGOERAREN AZTERKETA ETA JOERAK:

TOKIKO AGENDA 21eko PROZESUETAN INPLIKATUTAKO UDALERRIAK



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila.
Oharra: 2005eko uztaileara arteko datuak.



TOKIKO AGENDA 21 EZARTZEKO PROZESUAN INPLIKATUTA DAUDEN UDALERRIAK (2005eko uztaila)

ARABA	BIZKAIA			GIPUZKOA	
Dulantzi (1)	Abadiño	Ermua (1)	Jatabe	Aduna	Itsasondo
Amurrio (5)	Abanto-Zierbena	Errigoiti	Mendata	Aia	Larraul
Asparrena	Ajangiz	Etxebarri	Mendexa	Aizarnazabal	Lasarte-Oria
Barrundia	Alonsotegi (1)	Etxebarria	Meñaka	Albiztur	Lazkao
Burgelu	Zornotza	Forua	Morga	Alkiza	Legazpi (3)
Iruraiz-Gauna	Amoroto	Fruiz	Mundaka	Altzaga	Legorreta (1)
Lantaron	Arakaldo	Galdakao	Mungia (3)	Andoain (4)	Leintz-Gatzaga
Laudio (5)	Arantzazu	Galdames	Munitibar-Arbatzegi	Anoeta	Lezo
Agurain	Areatza	Gamiz-Fika	Gerrikaitz-	Antzuola	Mendaro
Donemiliaga	Arrankudiaga	Garai	Murueta	Arama	Mutiloa
Gobiaran	Arratzu	Gatika	Muskiz	Aretxabaleta	Mutriku (3)
Gasteiz (5)	Arrieta	Gaulegiz-Arteaga (1)	Muxika	Arrasate (3)	Oiartzun (2)
	Arrigorriaga	Gernika-Lumo (2)	Nabarniz	Asteasu	Olaberria
	Artea	Getxo (5)	Ondarroa (4)	Astigarraga (1)	Oñati
	Artzetales (1)	Gizaburuaga	Orozko	Ataun	Ordizia
	Atxondo	Gordexola (1)	Ortuella	Azkoitia (3)	Orio
	Aulesti	Gorliz	Otxandio	Azpeitia (3)	Ormaiztegi
	Bakio (1)	Güeñes (2)	Plentzia	Beasain	Pasaia
	Balmaseda (1)	Ibarrangelu	Portugalete	Bergara	Segura
	Barakaldo	Igorre	Santurtzi (10)	Bidegoian	Soraluze (1)
	Barrika	Ispaster	Sestao	Deba (1)	Tolosa (5)
	Basauri (2)	Iurretza	Sondika	Donostia (4)	Urnieta
	Bedia	Izurtza	Sopelana	Eibar (2)	Urretxu (3)
	Berango	Karrantza Harana	Sopuerta	Elgeta	Usurbil
	Bermeo (1)	Kortezubi	Sukarrieta	Elgoibar (3)	Villabona
	Berriatua	Lanestosa	Turtzioz	Errenteria	Zaldibia (1)
	Berriz	Larrabetzu	Ugao	Eskoriatza (1)	Zarautz (5)
	Bilbo (13)	Laukiz	Urduña	Ezkio-Itsaso	Zegama
	Busturia	Leioa	Urduliz	Gabiria	Zerain
	Derio	Lekeitio (2)	Trapagaran	Gaintza	Zestoa
	Dima	Lemoa	Zaldibar	Getaria	Zizurkil
	Durango	Lemoiz	Zalla	Hernani (1)	Zumaia
	Ea	Lezama	Zamudio	Hernalde	Zumarraga (1)
	Elantxobe	Loiu	Zaratamo	Hondarribia	
	Elorrio	Mallabia	Zeanuri	Idiazabal (1)	
	Erandio	Mañaria	Zeberio	Irun (7)	
	Ereño	Markina-Xemein (1)	Zierbena	Irura	

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila.

Oharra: Letra lodiz, Udalsarea 21 Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sareko kide diren udalerriak. Parentesi artean, Eskolako Agenda 21 programan parte hartzen duten ikastetxeen kopurua.

1998an Euskal Autonomia Erkidegoko lau udalerrri zeuden Tokiko Agenda 21 ezartzeko prozesuan inplikaturik, 2003an 128, 2004an 170 eta 2005eko uztailan 192 (12 Araban, 110 Bizkaian eta 70 Gipuzkoan).

2001eko abenduan sortu zen **Udalsarea 21** Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarea. Tokiko Agenda 21en diseinua burutua zuten 16 udalerririk osatzen zuten Udalsarea 21, eta, beraz, ekintza-plana ezartzeko faseari ekin zioten. 2005eko uztailan 66 udalerrri zeuden sare horretan.

2003-2004 ikasturtean jarri zen martxan **“Eskolako Agenda 21”** garapen iraunkorrerako hezkuntza-programa. 12.226 ikasle eta 46 ikastetxek hartu zuten parte programa horretan. 2004-2005 ikasturtean, 130 ikastetxek (Arabian 16, Bizkaian 56 eta Gipuzkoa 58), 45.534 ikasle eta 2.881 irakasle hartu dute parte.

Informazioaren kalitatea: ★ ★ ★ Handia

20. ADIERAZLEA Ingurumen-kudeaketa Enpresan



- 2004an, 710 euskal enpresak zuten ingurumena kudeatzeko sistemaren baten ziurtagiria, eta, beraz, 2006rako jarritako helburua bete zen (600 enpresak ziurtagiria izatea).
- 2004an, 184 enpresa gehiagok lortu zuten ingurumena kudeatzeko sistemaren baten ziurtagiria (2003an baino % 38 gehiago), eta 92 enpresak egin zuten Ekoscan bat (2003an baino % 16 gehiago).
- Bestalde, 187 enpresak sinatu zuten borondatezko akordioaren bat ingurumenean eragiten dituzten inpaktuak murrizteko.

INGURUMEN-HELBURUAK


- Ingurumena kudeatzeko EMAS sistemaren bidez ingurumen-legeriaren ezarpena kontrola dadin sustatzea.
- Ingurumena kudeatzeko sistemak, ingurumen-txostenak eta antzekoak bultzatzea.
- Produkzio garbiko sistemak sustatzea.
- Hondakinak jatorrian minimizatzea eta prebenitzea, eta hondakinen ekoizpena eta kaltegarritasuna urritzeta.

GARAPEN IRAUNKORRAREN INGURUMEN ESTRATEGIAREN KONPROMISOAK

- 2006rako, Euskal Autonomia Erkidegoko 50 enpresak EMAS ziurtagiria izatea.
- 2006rako, Euskal Autonomia Erkidegoko 10 enpresak eta, 2012rako, 40 enpresak iraunkortasun-txostenak (GRI) egitea.
- 2006rako, 600 enpresak eta, 2012rako, 1.000 enpresak ingurumena kudeatzeko sistemen ziurtagiria izatea (EMAS edo ISO 14001).

EGOERAREN AZTERKETA ETA JOERAK:

ISO 14001, EMAS eta EKOSCAN DITUZTEN ENPRESEN KOPURUA



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila.

Gero eta enpresa gehiagok ezartzen dituzte ingurumena kudeatzeko sistemak. 2004an, Euskal Autonomia Erkidegoko 707 enpresak zuten ISO 14001 ziurtagiria, eta 24 enpresak EMAS. Hortaz, guztira, Euskal Autonomia Erkidegoko 710 enpresak dituzte ingurumen-ziurtagiriak (horietako batzuek bi ziurtagiriak lortu dituzte). Horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek 2006rako aurreikusitako helburua bete dute (600 enpresak ziurtagiria izatea). Bestalde, 2004an, Euskal Autonomia Erkidegoko 654 enpresak Ekoscan bat egin zuten (1998an 2k), eta 29 enpresak Eusko Jaurlaritzaren Ekoscan ziurtagiri berria lortu zuten.

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek beste bide bat ere hartu dute ingurumenaren alde egiteko: borondatezko akordioak sinatu dituzte Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailarekin. Mekanismo horren bidez, enpresek borondatezko konpromisoa hartzen dute ingurumenean eragiten dituzten inpaktuak murrizteko. 2005eko uztailan, hain justu, Euskal Autonomia Erkidegoko 187 enpresak hartu zuten konpromiso hori (2004an, 124 enpresak).

Informazioaren kalitatea: ★ ★ ★ Handia

21. ADIERAZLEA Mugikortasun Iraunkorra



- Guztira, Euskal Autonomia Erkidegoko 60 udalerrri eta 8 eskualde ari dira mugikortasun iraunkorrerako planetan parte hartzen.
- Aurrera egiten hasi gara enpresen eta industrialdeen eremuan mugikortasun iraunkorrerako planak ezartzen.
- Garraio publikoa erabiltzen duten bidaiarien kopurua % 29 igo da 1998 eta 2003 artean.
- Garraio publikoan bioerregaien erabilera igo egin da Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburuetan.

INGURUMEN-HELBUURUAK


- Garraiobideen modu-banaketa berriro bideratzea; horretarako, garraio kolektiboak eta motorrik gabekoak sustatu behar dira.
- Bidaiariak garraiatzeko hainbat garraio-modalitateen konbinazioa garatzea sustatzea, energia- eta ingurumen-eraginkortasuna handitzeko.
- Ingurumenean inpaktu txikiagoa eragiten duten moduak bultzatzea, tasen edota prezio publikoen politikaren bidez.
- Ingurumena gehiago errespetatzen duten garraiobideetarako azpiegiturretan inbertitzeari lehentasuna ematea.

GARAPEN IRAUNKORRAREN INGURUMEN ESTRATEGIAREN KONPROMISOAK


- Garraio pribatutik publikora bidaiariak aldaraztea, etorkizuneko Garraio Iraunkorraren Planaren barnean.
- 2006rako, garraiobide kolektiboen esku-hartzea % 10 gehitzea Euskal Autonomia Erkidegoko hirigune nagusietako bidaiarien guztizko garraioan, 2001. urtearekin alderatuta.
- Errepideko garraiobideak gutxiago erabiltzea, eta horien ordez, trenbideak, ubide nabigagarriak nahiz bidaiarien garraio publikoa indartzea, 2012ko errepideko garraioaren kuota 2001ekoa baino handiagoa izan ez dadin.

EGOERAREN AZTERKETA ETA JOERAK:

MUGIKORTASUN IRAUNKORRERAKO PLANAK DITUZTEN UDALERRIAK



GARRAIO PUBLIKOAREN ERABILERAREN BILAKAERA EAEn



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila.

Iturria: Sustapen Ministerioa.



MUGIKORTASUN IRAUNKORRERAKO UDAL-PLANAK DITUZTEN EAeko UDALERRIAK

ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Amurrio	Arantzazu Areatza Arrieta Artea Bakio Basauri Bedia Berriatua Dima Erandio Ermua Etxebarria Fruiz Gamiz-Fika Gatika Gizaburuaga Igorre Ispaster Laukiz Lekeitio Lemoa Mallabia Markina-Xemein Jatabe Mendexa Meñaka Mungia Ondarroa Zeanuri	Albiztur Antzuola Arrasate Aretxabaleta Azkoitia Azpeitia Beizama Bergara Bidegoien Deba Eibar Elgeta Elgoibar Errenteria Errezil Eskoriatza Ezkio-Itsaso Legazpi Leintz-Gatzaga Lezo Mendaro Mutriku Oiartzun Oñate Pasaia Soraluze Tolosa Urretxu Zarautz Zumarraga
Mugikortasun iraunkorrerako eskualdeko planak		
Arratia Debabarrena Lea-Artibai Mungialdea	Debagoiena Urola Erdia Alto Garaia Oarsoaldea	

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila.

Azken urtean gorantz jarraitu du Tokiko Agenda 21 prozesuaren esparruan mugikortasun iraunkorrerako udal-planak prestatzeko joerak. Plan horien helburua da jendea mugitzeko ingurumenaren aldetik iraunkorragoak diren moduak sustatzea, hau da, berriztagarriak ez diren baliabide natural gutxiago kontsumitzen dituzten eta, oro har, ingurumena gutxiago kaltetzen duten (emisio atmosferiko eta zarata gutxiago, etab.) irtenbideak bilatzea. 2005ean, guztira, Euskal Autonomia Erkidegoko 60 udalerrri eta 8 eskualde daude mugikortasun iraunkorreko planetan sartuta.

Helburu berarekin hasi dira mugikortasun-planak garatzen enpresa pribatuaren esparruan. Orain arte, Azpeitiko Landeta industrialdean, Oiartzungo Ugaldetxo industrialdean eta Zamudioko ITP enpresan ari dira mugikortasun-planak egiten.

Garraio publikoa erabiltzen duten bidaiarien kopurua % 29 igo da Euskal Autonomia Erkidegoan 1998 eta 2003 bitartean, batez ere, Bilboko Metroa martxan jartzearen ondorioz. Hala ere, *Euskal Autonomia Erkidegoko mugikortasunari buruzko azterketak* adierazten du batez besteko lanegun bateko joan-etorrien % 14 bakarrik egiten dela garraio publikoa erabiliz.

Bestalde, garraio publikoetan gero eta gehiago erabiltzen dira bioerregaiak. Adibide gisa, Bilbobuseko autobusen % 14k eta Donostiako Tranbia Konpainiako autobusen % 100ek erabiltzen dute biodieselaren beren joan-etorrietan.

Informazioaren kalitatea: ★ ★ ★ Handia

22.

ADIERAZLEA

Ekoeraginkortasun Globala eta Sektoriala



■ **Ekonomia oro har:** 1990-2004 bitartean, nolabaiteko etendura izan zen hazkunde ekonomikoaren eta ingurumenaren artean, ingurumen-presio nagusiak gehitu egin baitziren, BPGa baino neurri txikiagoan betiere.



■ **Garraioa:** Alor horren ingurumen-presio nagusiak hazkunde ekonomiko totala baino neurri handiagoan ari dira handitzen. 2004an, sektorearen ingurumen-presio nagusiek gorantz jarraitu zuten.



■ **Industria:** 1990etik aurrera, sektore honek murriztu egin ditu bere ingurumen-presioak, produkzioa nabarmen handitu den arren.



■ **Etxeak:** Azken urteotan, sektore honek egindako ingurumen-presioak etxeetako gastuaren hazkundera baino neurri handiagoan gehitu dira. 2004an, gehitu egin dira Euskal Autonomia Erkidegoko etxeetako ingurumen-presio guztiak.




■ **Energiaren transformazioa:** 1990 eta 2004 bitartean, energia-ekoizpena igo egin zen, eta berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioak ere igo egin ziren.

INGURUMEN-HELBURUAK

- Hazkunde ekonomikoa ingurumenean sortzen dituen inpaktu negatiboetatik bereiztea.

EGOERAREN AZTERKETA ETA JOERAK:


Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiaren ekoeraginkortasuna



Iturriak: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila; EUSTAT.

Oharra: MBTren aldakuntza-tasa 2002-2003 aldiari dagokio.

EAEko EKONOMIAREN EKOERAGINKORTASUNA (2003 - 2004 epeko aldakuntza-tasa)




Iturriak: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila; EUSTAT.
Oharra: MBTren aldakuntza-tasa 2002-2003 aldiari dagokio.

1990 eta 2004 bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoko BPGa ingurumen-presio nagusien gainerik handitu da. Euskal gizarteak sortutako aberastasuna % 57 hazi den bitartean, ingurumen-presioak BPGa baino neurri txikiagoan handitu dira (berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioak % 35, hiri-hondakinak % 27, energia-kontsumoa % 38 eta materialen kontsumoa % 24).

2003aren eta 2004aren artean izandako aldaketa aztertuta, ikusten da berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioak, hiri-hondakinen sorrera eta energiaren kontsumoa BPGaren gainerik hazi direla.

Garraio-sektorea

GARRAIO-SEKTOREAREN EKOERAGINKORTASUNA




Iturriak: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila; EUSTAT.
Oharra: Datu guztiak garraio-sektoreari buruzkoak dira, BPGarena izan ezik; horrek ekonomia osoari egiten dio erreferentzia.

1990-2004 bitartean Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomian BPGak izan duen hazkundera garraioak sortutako ingurumen-presio batzuen hazkundera are handiagoarekin batera gertatu da. Adibidez, garraio-sektorearen energia-kontsumoaren igoerak (+ % 88) berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioak gehitzea (+ % 92) ekarri du. Aldi berean, autobideak eta autobiak % 43 luzatu dira guztira. 2004an, sektorearen ingurumen-presio nagusiek gorantz jarraitu dute.



Industria-sektorea

INDUSTRIA-SEKTOREAREN EKOERAGINKORTASUNA



Iturriak: Eusko Jauriaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila; EUSTAT.

Oharrak: Datu guztiak industria-sektoreari buruzkoak dira, energia-industria izan ezik (fintzea eta elektrizitatea sortzea).


1991 eta 1994 bitartean hondakin arriskutsuak murriztu egin ziren, azido sulfurikoaren produkzioan lehenagai gisa erabiltzen den pirita findegiko sufreakin ordeztu baitzen.

1990 eta 2004 bitartean, industria-sektorearen Balio Erantsi Gordina (BEG) % 68 igo da; sektore horrek sortutako ingurumen-presioak, berriz, jaitsi egin dira. Berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioa jaitsi egin da (- % 26), baita hondakin arriskutsuen sorrera ere (- % 13). Azkeneko urtea aztertzen badugu, ikus daiteke

industria-sektoreko BEGaren hazkundera hondakin arriskutsuen eta energia-kontsumoaren hazkunderarekin batera gertatu dela, berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioak jaitsi egin diren arren (2003ko datuen arabera).



Etxeko sektorea




Iturriak: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila; EUSTAT.
 Oharra: Datu guztiak etxeko sektoreari buruzkoak dira.

1990-2004an, etxebetako gastuak izan duen igoera (+ % 40) sektore horretako ingurumen-presioen hazkundearekin estu lotuta egon da. 1990etik aurrera, energia-kontsumoa % 55 hazi da; berotegi-efektuko gasen emisioak, % 45; eta hiri hondakinak, % 27. 2004an,

igo egin dira aztertutako aldagai guztiak: energia-kontsumoa (+ % 8), berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioak (+ % 9), hondakinak (+ % 3) eta auto-kopurua (+ % 3).

Energia-transformazioaren sektorea



Iturriak: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila; EUSTAT.
 Oharra: Datu guztiak energia transformatzeko sektoreari buruzkoak dira.

1990-2004 epean, energia transformatzeko duen sektorean (petrolio-fintzea eta elektrizitatea sortzea) % 13 hazi da produkzioa. Horrekin batera, berotegi-efektuko gasen emisioak % 129 hazi dira, Pasaia eta Santurtziko zentral termikoetako ekoizpena handitu egin delako, batez ere. Bestalde, nabarmendu behar da 2004an

energiaren ekoizpena handitu egin dela (+ % 3); ondorioz, berotegi-efektuko gasen emisioak ere hazi egin dira (+ % 13) sektore honetan.

Informazioaren kalitatea: ★★ Ertaina

Ondorioak

1. URA. Zertxobait hobetu da gure ibai eta itsasoetako uraren kalitatea




Ibaiak: 2004an, estazioen % 38 jo dira ez-poluitutzat; 2000n, berriz, % 18. Hala eta guztiz ere, egoera txarrean daude zenbait ibai-zati (Nerbioi-Ibaizabal, Deba eta Oria ibaien arroak).


Estuarioetako eta kostaldeko urak: 2003an, estazioen % 23 jo ziren ez-poluitutzat; 1998an, % 20.

1998tik 2004ra, **karga poluitzaileen** bilakaera positiboa izan zen. Izan ere, saneamendu-azpiegiturak ezarri ziren (araztegiak eta kolektoreak), eta murriztu egin ziren kobre- (% 59) eta zink-kantitateak (% 85), baita fosforodun konposatuak (% 81) eta konposatu nitrogenatuak (% 56) ere.

UR-KALITATEA: IBAIAK



UR-KALITATEA: ESTUARIOAK ETA KOSTALDEA




2. AIREA. Airearen kalitateak egonkor segitzen du




2004an, airearen kalitateak izan duen arazo bakarra da gairitu egin dela partikula esekien gehienezko kopurua; ozono troposferikoaren eragina, berriz, desagertu egin da.

GIZA OSASUNAREN BABESERAKO PM10-EN EGUNEKO BATEZ BESTEKO BALIOA > 50 µg/Nm³ URTEAN 35 ALDITAN BAINO GEHIAGOTAN GAINDITU DUTEN ESTAZIOEN KOPURUA



OZONOAREN GEHIENEZKO BALIOA 180 µg/Nm³ GAINDITU DEN ALDIEN BATEZ BESTEKO KOPURUA



3. BALIABIDE NATURALAKON KONTSUMOA. Eraginkortasunak hobetuz jarraitu du, baina baliabideen kontsumoak gora egiten du etengabe




Energiaren azken kontsumoa % 38 igo zen 1990etik 2004ra, eta materialen guztizko kontsumoa % 24 1994 eta 2005 bitartean, % 5,2tik % 6,4ra igaro da lurzoru artifizialduaren azalera.




1990 eta 2004 bitartean, energia-eraginkortasuna % 14 hobetu da, eta materialen erabileraren eraginkortasuna % 22 hazi da 1990-2003 bitartean.

NATUR BALIABIDEEN KONTSUMOA



ENERGIA- ETA MATERIAL-ERAGINKORTASUNA



4. HONDAKINAK. Bai hiri-hondakin, bai hondakin arriskutsuen kudeaketak hobera egin badu ere, geruz eta gehiago sortzen dira




1998-2004 epean, % 14 hazi zen hiri-hondakin kopurua, hau da, biztanleko 491 kg-tik 559 kg-ra igaro zen. Hondakin arriskutsuei dagokienez, % 19 hazi ziren 1994tik 2002ra bitartean. 2002arekin alderatuta, % 3,3 gehiago sortu zen 2003an.




Hondakin kudeaketak hobetuz jarraitzen du. Gero eta hiri-hondakin gehiago balorizatzen da (1998an, % 15; 2004an, % 35), baita hondakin arriskutsu gehiago ere (1994an, % 28; 2002an, % 51).

HIRI-HONDAKINAK SORTZEA ETA BALORIZATZEA



HONDAKIN ARRISKUTSUAK SORTZEA ETA BALORIZATZEA




5. KLIMA-ALDAKETA. CO₂ emisioak gure helburuetatik urruntzen ari dira



Berotegi-efektua eragiten duten gas nagusien zuzeneko emisioak % 35 igo ziren Euskal Autonomia Erkidegoan 1990etik 2004ra.

BEROTEGI-EFEKTUA ERAGITEN DUTEN GASAK EAEn, EBn eta ESPAINIAN



6. EUSKAL EKONOMIAREN EKOERAGINKORTASUNA. Ekonomia hazi egin da, baina baita ingurumen-arazoak ere



Ekoeraginkortasun orokorra: 1990etik 2004ra bitartean, nolabaiteko etendura gertatu zen hazkunde ekonomikoaren eta ingurumenaren artean. Izan ere, hazi egin ziren ingurumen-presio nagusiak, baina BPGren azpitik.




1990-2004 epean, **industriaren sektoreak** gutxitu egin zituen ingurumen-presioak (BEGak, - % 26; hondakin arriskutsuak, - % 16) eta hazi egin zen produkzioa (Balio Erantsi Gordina, + % 68).












1990etik 2004ra bitartean, **garraioaren eta etxebizitzaren sektoreek** izan zuten akoplamendu-maila handiena, hots, sektore horietako hazkundeekin batera ingurumen-inpaktuetan ere hazkundeak izan ziren (garraioaren BEGak, + % 92; etxebizitzaren BEGak, + % 45, eta hiri-hondakinak, + % 27).




EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EKONOMIAREN EKOERAGINKORTASUNA



7. Ingurumen-adierazleen bilakaera helburuekin alderatuta

Adierazlea	Helburua edo erdietsi nahi den joera	Egoera (urtea)	Helburua betetzeko aukera
1. Uren kalitatearen indizea	2012rako, lur gaineko uren % 80ren egoera ekologikoa eta kimikoa ona edo oso ona izatea. (Helburua: % 80)	%38 (2004)	
2. Karga poluitzaileak kontinente barruko eta itsasertzeko uretan Mantenugaiaik: P guztira PO ₄ P N guztira Nitritoak Amonioa Metal astunak: Kobrea Merkurioa Kadmioa Zinka Beruna	2006rako, Euskal Autonomia Erkidegoan ubide publikoetara edo lurraren eta itsasoaren arteko eremuetara isuritako guztizko karga poluitzaileak % 50 murriztea, 2001ekin alderatuta. (Helburua: - % 50)	(2004) - %81 + %58 - %53 + %59 + %43 - %46 + %10 - %70 + %447	
3. Airearen kalitatea	Europako Batasunak inguruneke airearen kalitateari buruz ezarritako helburuak betetzea. (Helburua: airearen kalitatea txarra den egunen kopurua murriztea)	96 (2004)	
4. Poluitzaile atmosferikoen emisioak a. SO ₂ b. NO _x c. KOL	2010erako helburuak - %66 - %31 - %7	(2003) - %9 + %8 - %43	
5. Lurzoru poluituak Lurzoru poluitu publikoak berreskuratzea (balio absolututan)	2006rako, Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoru poluitu publikoen % 20 berreskuratzea, 2001ekin alderatuta. (Helburua: 43 lurzoru-eremu)	32 (2004)	
7. Berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioak	2012rako, berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioak murrizteari buruz Kyoton adostutako helburuak betetzea. (Espainiak + % 15 2008-2012 bitartean, 1990 oinarri-urtearekiko)	+ %35 (2004)	
8. Hondakinen sorrera a. Hiri-hondakinak b. Hondakin arriskutsuak	2012rako, hiri-hondakinen per capita sorrera 2001eko mailan egonkortzea. (Helburua: 527 kg) 2006rako, hondakin arriskutsuen sorrera 2000ko kopuruetan egonkortzea. (Helburua: 321.415 tona)	559 kg (2004) 346.491 Tona (2003)	
9. Hondakinen kudeaketa a. Hondakindegian uzten diren hiri-hondakinen tasa (ehunekotan) b. Hondakin arriskutsuen balorizazio-tasa (ehunekotan)	2006rako, % 75eraino murriztea zabortegira eramaten den hiri-hondakinen kantitatea. (Helburua: < % 75) 2006rako, hondakin arriskutsuen balorizazio-tasa % 51raino handiagotzea.	%65 (2004) %51 (2004)	 Erdietsia Erdietsia
10. Zarata	Zarata handien eraginpean dagoen populazioa murriztea.	%18 (2003)	
13. Ur-kontsumoa	Biztanleko ur-kontsumoa handitzeko joera aldatzea.	130 (2001)	

Adierazlea	Helburua edo erdietsi nahi den joera	Egoera (urtea)	Helburua betetzeko aukera
14. Energia-kontsumoa a. Energia-kontsumoa b. Energia-eraginkortasuna	Murriztea.	+ %38 (1990-2004)	
	Handitzea.	+ %14 (1990-2004)	
15. Materialen kontsumoa a. Material Behar Totala b. Materialen eraginkortasuna	2006an, per capita Material Behar Totala (MBT) 1998koen parekoa izatea. (Helburua: 81 tona)	97 Tona (2003)	
	Handitzea.	+ %14 (1990-2002)	
16. Lurzoruaren artifizializazio-intentsitatea (lurzoruaren kontsumoa)	Ez handitzea.	+ %25 (1994-2005)	
18. Nekazaritza-sektoreko jarduerak	2006rako, nekazaritza ekologikorako 300 Ha-ko azalera erabiltzea; 2012rako, 600 Ha-koa; eta 2020rako, 2.000 Ha-koa. (Helburua: 300 Ha)	909 (2004)	 Erdietsia
19. Tokiko Agenda 21 Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietan	2006rako, 5.000 biztanle baino gehiago dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietan Tokiko Agenda 21 diseinatua izatea. (Helburua: 64)	64 (2005)	 Erdietsia
20. Sistemas de Gestión Medioambiental en empresas (en valores absolutos)	Para 2006 aumentar a 600 con certificación de Sistemas de Gestión Medioambiental (EMAS o ISO 14001).	707 (2004)	 Erdietsia
22. Ekoeraginkortasuna	Desakoplamendu absolutua.	Desakoplamendu erlatiboa (2004)	

-  Gaur egungo politikekin jarraituta, lortzeko moduko helburuak.
-  Gaur egungo politikekin jarraituta, agian lor daitezkeen helburuak.
-  Gaur egungo politikekin jarraituta, lortzeko zailak diren helburuak.

1. **oharra:** Dela 2002-2020ko Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategian, dela Europako Batasuneko zuzentarauetan eta politiketan helburua ezarrita duten ingurumen-adierazleen bilakaera adierazten da, helburu horien erreferentziako urtean oinarrituta.

2. **oharra:** Taulan adierazitako helburu-balio guztiak Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategian zehaztutakoak dira, salbuespen honekin: 4. eta 7. adierazleak Europako Batasunak Espainiarentzat finkatutako helburuak dira.

3. **oharra:** Ez daude 6., 10., 11., 12., 17. eta 21. ingurumen-adierazleak, ez baitugu datu edo helburu kuantitatiborik. 19. adierazlea 2005eko uztaileko datuei dagokie.

1. eranskina: Akronimoak

BMWP'	Biological Monitoring Working Party
BEG	Berotegi-efektua eragiten duten gasak
BEG mp	Balio Erantsi Gordina merkatu-prezioetan
BPG	Barne Produktu Gordina
CEPA	Ingurumena Babesteko Jarduera eta Instalazioen Europako Sailkapen Estatistiko Bakar eta Uniformea
CH₄	Metanoa
CO	Karbono monoxidoa
CO₂	Karbono dioxidoa
dB(A)	A dezibelak
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
EB	Europako Batasuna
EEE	Energiaren Euskal Erakundea
EMAS	Ingurumena Kudeatzeko eta Ikuskatzeko Europako Batasuneko Sistema
EUSTAT	Euskal Estatistika Erakundea
HBGB	Hegaztiak Babesteko Gune Bereziak
Hm³	Hektometro kubikoa
IB	Indize Biotikoa
IKL	Interes Komunitarioko Lekua
ISO 14001	Estandarizaziorako Nazioarteko Erakundearen Ingurumena Kudeatzeko Sistema
kg	kilogramoa
KOL	Konposatu organiko lurrunkorrak
ktpb	kilotona petrolio baliokide
MBG	Material Beharrak Guztira
N₂O	Oxido nitrosoa
NH₃	Amoniakoa
NO₂	Nitrogeno dioxidoa
NO_x	Óxidos de nitrógeno
O₃	Ozonoa
Pb	Beruna
PM₁₀	10 µm-tik beherako diametroa duten partikula esekiak
PO₄-P	Ortofosfatoa - fosforoa
SO₂	Sufre dioxidoa
µg/m³	mikrogramoa metro kubikoko
µg/Nm³	mikrogramoa metro kubikoko, presio- eta tenperatura-egoera normaletan neurtuta
µm	mikrometroa (10 ⁻⁶ metro)

2. eranskina: Glosarioa

Agenda 21	1992an Rio de Janeiron egin zen Konferentzian garapen iraunkorra bultzatzeko ekimenari jarri zitzaion izena. Tokiko Agenda 21 deitzen zaie, bestalde, udal bakoitzeko agintariek onartzen dituzten iraunkortasun-plan edo -programa estrategikoei.
Arro hidrografikoa	Bokale, estuario edo delta bakar batetik itsasoratzen den ura garraiatzen duten ur-laster, ibai eta, zenbaitetan, lakuek drainatzen duten lurraldea.
Azidotzea	Jalkipen atmosferikoaren bidez ingurumenean substantzia azidotzaileak sartzearen ondorioa. Hauek dira azidotzea eragiten duten airearen poluitzaile nagusiak: sulfre dioxidoa (SO ₂), nitrogeno-oxidoak (NO _x) eta amoniakoa (NH ₃).
Azken energia-kontsumoa	Energia-sektoreak energia eraldatu, garraiatu eta banatu ostean, azken kontsumitzaileen esku utzitakoa.
Balio Erantsi Gordina merkatu-prezioetan (BEG mp)	Produkzio-prozesuan denboraldi jakin batean sortu den balio berria adierazten du. Fabrikatik irtetean produktuek duten prezioan produzitzearen eta erdiko inputen arteko aldea. Ustiapeneko Soberakin Gordinaren eta Produktioari dagozkion zergen batura (Ustiapeneko Diru Laguntza kenduta) da, hortaz.
Balorizazioa	Hondakinetako baliabideak aprobetxatzeko aukera ematen duen prozedura oro, pertsonen osasuna arriskuan jarri gabe eta ingurumenean kalteak sor ditzaketen metodoak erabili gabe.
Barne Produktu Gordina (BPG)	Herrialde edo eskualde batean ekoizten (edo kontsumitzen) diren ondasun eta zerbitzu guztien balioa.
Berotegi-efektua	Planetaren azalean tenperaturak gora egitea, haren atmosfera berotegietako estalkia bailitzen jarduteagatik. Lurrari dagokionez, eguzki-erradiazioa sartzen da atmosferan, baina izpi infragorriak azalean eta atmosferaren beheko aldean geratzen dira. Bere kasa gertatzen da fenomeno hori naturan; horri esker dauka Lurra 15 °C-ko batez besteko tenperatura. Berotegi-efekturik ez balego, Lurrean ez litzateke egongo gaur egun dagoen bizia.
Berotegi-efektua eragiten duten gasak (BEG)	Lurraren azalak eta hodeiek igortzen duten erradiazio-espektroaren (erradiazio infragorria) uhin-luzera jakin batzuetan erradiazioa xurgatzen duten gasak. Gasak, berriz, erradiazio infragorria igortzen du, azalekoa baino tenperatura baxuagoko maila batetik. Ondorioz, xurgatutako energiaren zati bat harrapatuta gelditzen da eta Lurraren azala berotu egiten da. Lurraren atmosferan, hauek dira, nagusiki, berotegi-efektua eragiten duten gasak: ur-lurrina (H ₂ O), karbono dioxidoa (CO ₂), oxido nitrosoa (N ₂ O), metanoa (CH ₄) eta ozonoa (O ₃).
Berrerabiltzea	Erabilitako produktu bat jatorrian zuen helburu berdinerako erabiltzea.
Bioaniztasuna (=aniztasun biologikoa)	Edozein jatorritako (ekosistema lehortarra, itsastarra eta beste ur-sistemak) organismo bizien ugartasuna, haiek partaide diren konplexu ekologikoak ere barne direla. Espezie bakoitzaren, espezieen arteko eta ekosistemen aniztasuna hartzen ditu bere baitan.
Birziklatzea	Produkzio-prozesu baten barruan egiten den hondakinen transformazioa, hasieran zuten helbururako edo beste helburu batzuetarako, konpostajea eta biometanizazioa barne, baina ez energia berreskuratzen duen erraustea.
Ekonomiaren eta ingurumenaren arteko desakoplamentua (=deslotura, banantzea)	Ekonomia-hazkunderaren eta horri dagozkion ingurumen-presioen arteko loturaren haustura. Ingurumen-presioa jarduera ekonomikoa baino gutxiago hazten denean erlatiboa izaten da desakoplamentua. Ingurumen-presioak behera egiten duenean edo konstante irauten duenean jarduera ekonomikoa gora ari diren bitartean, absolutua izaten da desakoplamentua.
EMAS	Ingurumena kudeatzeko eta ikuskatzeko Europako Erkidegoko sistema, hainbat erakunde bere borondatez parte hartzeko aukera ematen duena, erakunde horiek ingurumenari dagokionez duten jokaera ebaluatzeko zein hobetzeko eta herritarrei nahiz gaiaz arduratzen diren gainerako alderdiei informazioa hedatzeko.
Energia berriztagarriak	Naturan dauden energiak, etengabe berritzen direnak. Horrexegatik dira energia-baliabide agortezinak. Energia-iturri horietatik, honako hauek dira azpimarratzekoak: biomasa, energia geotermikoa, energia hidraulikoa, eguzki-energia, energia eolikoa eta itsasoko energia (marea-energia eta olatuena), hondakindegiko-gasak, biogasa eta hondakin-uren araztegiakoko gasak.
Energia-eraginkortasuna (Energia-intentsitatearen alderantzizkoa)	Energiaren zentzuzko erabilera, kontzeptu hauek aintzat hartzen dituena: energia-aurrezpena, berrikuntza energetikoa (prozesuena, sistemena eta ekipo kontsumitzaileena), baita energiaren aprobetxamendu hobea eta integralarekin lotutako beste batzuk ere (kogenerazioa, esate baterako).
Energia-intentsitatea (Energia-eraginkortasunaren alderantzizkoa)	Herrialde edo eskualde baten barne-produktu gordinaren eta energia-kontsumoaren arteko erlazioa. Jarduera jakinetako sektoreei edo azpisektoreei buruzkoa ere izan daiteke. Ekoizpen-sektore eta -jardueretan energia zentzuz erabiltzen ote den jakiteko egiten den neurketa da.
Espezie aloktonoa	Jatorriz dagoen tokikoa ez den espeziea da.
Espezie autoktonoa	Jatorriz dagoen tokikoa den espeziea da.
Espezie baten habitata	Bere ziklo biologikoaren fase batean espeziea bizi den ingurunea, faktore abiotiko eta biotiko espezifikoei zedarritua.

Gaikako bilketa	Hartzi daitezkeen material organikoen edo material birziklagarrien gaikako bilketa-sistema, baita hondakinetan dauden material balorizagarriak bereizteko aukera ematen duen gaikako beste edozein bilketa-sistema ere.
Hiri-hondakinak	Etxeetan, saltokietan, bulegoetan eta zerbitzuetan sortzen diren hondakinak; halaber, arriskutsu-kalifikaziorik ez izan arren osaera edo izaeragatik aurrekoekin pareka daitezkeenak ere hiri-hondakintzat hartzen dira.
Hondakin arriskutsuak	Europako Hondakin Katalogoan (EHK) arriskutsu gisa azaltzen direnak.
Hondakinak	Edukiztaileak baztertzen duen edo baztertu behar duen edozein gai edo tresna. Nolanahi ere, Europako Hondakin Katalogoan (EHK) azaltzen diren substantziak.
Hondakinak ezabatzea	Gizakien osasuna arriskuan jarri gabe eta ingurumena kalte dezaketen metodoak erabili gabe hondakinak biltegitratzeko edo kontrolpean isurtzeko edo -erabat nahiz partzialki- deuseztatzeko erabiltzen diren prozedura guztiak.
Hondakinak jasotzea	Hondakinak garraiatzeko biltzea, sailkatzea, taldekatzea edo prestatzea.
Hondakindegia	Hondakinak ezabatzeko instalazioa. Lurrazalean edo lurpean gordetzen dira hondakinak.
Hondakinen kudeaketa	Hondakinak biltzea, biltegitratzea, garraiatzea eta ezabatzea, jarduera horien zaintza ere barne; halaber, barne hartzen du itxi ostean biltze- edo isurtze-guneak zaintzea ere.
Ingurumen-ziurtagiria	Borondatezko prozedura da, eta, horren bitartez, erakunde independente batek produktu, prozesu edo zerbitzu jakin batek xedatutako hainbat ingurumen-baldintza betetzen dituela adierazten duen idatzizko bermea ematen du.
Klima-aldaketa	Zuzenean edo zeharka giza jarduerak eragindako klimaren aldaketa, atmosferaren konposizioa aldatzen duena. Klimak berez izaten duen aldaketari (elkarrekin alderatzen diren denboraldi jakinetan behatua) erantsi behar zaio.
Konektagarritasun biologikoa	Paisaiaren mosaikoan dauden gune batzuetatik besteetara mugitzeko organismoek duten gaitasun-neurria. Paisaiaren osaeraren eta egituraren (paisaiako elementuen banaketa) arabera izaten da, baita bi aldagai horietara egokitzeo organismoek duten gaitasunaren arabera ere.
Konposatu organiko lurrunkorak (KOL)	Jatorri antropogenikoa eta biogenikoa duten konposatu organiko guztiak (metanoa izan ezik), eguzki-argitan nitrogeno-oxidoeekin erreakzionatzean oxidatzaile fotokimikoak sor ditzaketenak.
Lurra zigilatzea	Etxebizitzak, errepideak eta bestelakoak egiteko, lurra estaltzea.
Lurrazaleko urak	Ur kontinentalak (lur azpiko urak izan ezik); trantsizio-urak eta kostako urak.
Lurzoru poluitua	Ezaugarri kimikoetan aldaketak dituzten eta, horregatik, bere funtzioekin bateraezinak diren lurzorua, jendearen osasunerako edo ingurumenerako arrisku onartezina izan daitezkeelako. Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organismoari dagokio lur-izendapen hori egitea.
Lurzorua	Lurrazalaren goiko geruza. Partikula mineralek, materia organikoak, urak, aireak eta organismo biziek osatzen dute lurrazala; berau da, bestalde, luraren (geosfera), airearen (atmosfera) eta uraren (hidrosfera) arteko interfazea.
Material Beharrak Guztira (MBG)	Jarduera ekonomikoak direla-eta naturatik erazutako lehengaien bolumen metatua (urteko eta biztanle bakoitzeko, tonatan adierazia) hartzen du kontuan.
Materialaren eraginkortasuna = Materialaren produktibitatea	<i>Output</i> -erako materia-unitateko adierazlea.
Muga-balioa	Poluitzaile bakoitzeko jartzen den gehieneko muga onargarria, jakintza zientifikoa oinarri delarik betiere. Giza osasunean eta ingurumenean izan ditzaketen ondorio kaltegarriak prebenitu edo murriztea du helburu. Muga horiek epe jakin batean lortu behar dira, eta lortu ondoren ezin dira gainditu.
Mugikortasuna	Joan-etorrien kopurua neurtzen duen aldagai kuantitatiboa.
Naturgune babestua	Enklabe bitxiak, natur txoko pribilegiatuak edo prozesu ekologikoak babesteko eta natura kontserbatzeko zehaztutako administrazio-esparrua.
Substantzia arriskutsuak	Substantzia edo substantzia-talde toxikoak, iraunkorak eta biometaketa sor dezaketenak, baita antzeko arriskua eragin dezaketen beste zenbait substantzia edo substantzia-talde ere.
Uren egoera ekologikoa	Lurrazaleko urekin lotutako uretako ekosistemen egitura eta funtzionamenduaren kalitatearen adierazpena da; 2000/60 Zuzentarauaren V. Eranskineko adierazleen arabera sailkatzen da.
Zeharkako isurpenak	Transformazio-zentroetatik egiten diren zuzeneko isurpenak, kontsumitzaileen eskariaren arabera. Sektore bakoitzaren azken elektrizitate-konsumoaren arabera banatzen dira, beraz.
Zuzeneko isurpenak	Prozesu jakin bati dagozkion isurpenak, hura izaten den lekuan bertan sortuak.